

MUSIK 54

ASTE


EUSKAL MUSIKAREN ASTEA
SEMANA DE LA MÚSICA VASCA

MAIATZAK
10/16
MAYO



ERRETERIA
2026





ANTOLATZAILEAK ORGANIZAN

Andra Mari Abesbatza

Coral Andra Mari

Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa

Eresbil-Archivo Vasco de la Música

SUSTATZAILEAK PROMUEVEN

Errenteriako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputación Foral de Gipuzkoa

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

Departamento de Cultura del Gobierno Vasco

BABESLEAK PATROCINAN

Laboral Kutxa

Super Amara

LAGUNTZAILEA COLABORA

Herri Arte Eskola



EGITARRAUA Programa

MAIATZAK 10-16 MAYO

IGANDE JARDUNA jornada dominical	16
JOSEBA TAPIAren HAUSPOA	21
MUSIKA GARAIKIDEA música contemporánea	25
PROIEKZIO ZINEMATOGRAFIKOA proyección cinematográfica	27
KORUEN EGUNA día coral	33
AMAIERAKO KONTZERTUA concierto de clausura	39
JARDUERA PEDAGOGIKOAK actividades pedagógicas	40
MUSIKAGILEAK compositores	44

MENDEURRENAK **Centenarios**



**III. JAIOTZAREN
MENDEURRENA**
III Centenario
del nacimiento

José ZAMEZA ELEJALDE
(Aramaio, 1726-1796)

**II. HERIOTZAREN
MENDEURRENA**
II Centenario
del fallecimiento

Juan Crisóstomo de ARRIAGA
(Bilbao, 1806-1826)



**II. JAIOTZAREN
MENDEURRENA**
II Centenario
del nacimiento

Josef LUBET ALBÉNIZ
(Donostia, 1826-?)

**I. HERIOTZAREN
MENDEURRENA**
I Centenario
del fallecimiento

Pedro ALBERDI
(Tolosa, 1880-1926)

Sebastián ALDALUR
(Azkoitia, 1841-1926)

Eleuterio GARCÍA GOIZUETA
(Iruña, 1863-1926)

Joaquín MAYA
(Iruña, 1838-1926)

Juan José ZESTONA
(Zestoa, 1885-1926)

**I. JAIOTZAREN
MENDEURRENA**
I Centenario
del nacimiento

Antonio ARETA
(Vitoria-Gasteiz, 1926-2012)

Jean DONETCH
(Donazarre, 1926-2006)

Javier ELIAS MARTIARENA
(Bilbao, 1926-)

Juan José GAINZA
(Algorta, 1926-2011)

Jerman INTXAUSTI ARREGI
(Alegia, 1926-2004)

Sabina IRIONDO LEIBAR
(Arrasate, 1926-1975)

Baldomero ÁLVAREZ MIOTA
(Barakaldo, 1926-2010)

Zezipio PAGOAGA
(Mutriku, 1926-2010)

Mari Cruz PÉREZ DE ONRAITA GONZÁLEZ
(Ordoñana, 1926-)

Ricardo SABADIE
(Donostia, 1926-2009)

AURKEZPENA Presentación

MUSIKASTE – Euskal Musikaren Asteak 54. edizioari egingo dio aurre 2026an, jaialdiaren helburuak betetzen jarraitzeko erronkari leial izanik. Erronka horren adibide dira sortzaile eta interpreteei laguntzea, haien musikaren aurkikuntza eta egungo konpositoreei laguntzea.

MUSIKASTEK maiatzaren 10ean hasiko du aurtengo edizioa, erlijio musikari eskainitako kontzertuarekin. Kontzertu hau Heinrich Walther organista alemaniarraren eskutik entzun ahal izango dugu. Honek Juan Crisóstomo de Arriaga eta José María Usandizagaren organorako bi obren transkripzioa aurkeztuko du, eta Errenteriako Andra Mari Abesbatzarekin batera, Tomás Garbizuren *Misa Benedicta*-ren hiru zati ere eskainiko ditu. Ondoren, Txistu kontzertua izango dugu Jerman Intxausti, Raimundo Sarriegi, Javier Busto eta Ricardo Sabadiereen obren interpretazioarekin, Errenteriako Udal Txistulari Taldearen eskutik, Karnaba Otxotea, Ereintza Dantza Taldea eta Xenpelar Bertso Eskolarekin batera. Eguna amaitzeko, Errenteriako Musika Bandaren kontzertua izango da, Juan Crisóstomo de Arriaga, Jesús Guridi, Pedro Alberdi eta Ricardo Sabadiereen lanei eskainia.

Hurrengo astean murgilduta, hilaren 12 eta 13ko kontzertu didaktikoak nabarmendu behar dira, Zaria Koru Eskolaren eskutik, Imanol Elizasu zuzendariak gidatuta. Soinu bidaia batean murgilduko gaitu, estilo eta garai ezberdinetan zehar, ahotsa protagonista izanik.

Asteartean, hilak 12, herri musikak hartuko du lekukoa, *Joseba Tapiaren Hauspoa*, Errenteriako Arte Eskolak eta Iparraldeko Kontserbatorioak elkarlanean egindako proiektuarekin. Bertan, bi ikastetxeetako ikasleek Josebaren erreperitorioari buruz egindako lana erakutsiko dute, talde txikitan berrinterpretatuz.


Hilaren 13an musika garaikidea ere izango da protagonista *Sonografía Irudipenak* izeneko ikuskizunarekin. Garazi Navas eta Manu Gaigne buru direla, Euskal Herriko hainbat lekutako iraganeko eta egungo audio eta bideo grabazioak erabiliko dira, soinu espazio horien bilakaera kontuan hartuta, pieza propioak sortzeko helburuarekin.



Ostegunean, hilak 14, *Akelarre: marearen kontra* izeneko dokumentala proiektatuko da Niessen Zinemetan, euskal talde berezietako baten ibilbidearen bidaia emozional eta musikala proposatzen duena.

Ostiralean, ohi bezala, koru musikari eskainitako kontzertua izango da, eta Euskal Herri osotik etorritako taldeek hartuko dute parte. San Fermin Abesbatza (Zizur Txikia, Nafarroa), Nurat Gazte Abesbatza (Gasteiz), Ondarreta Abesbatza (Getxo, Bizkaia) eta Zaria Koru Eskola (Erreterria, Gipuzkoa) izango dira, besteak beste, Fermín Iriarte, Lorenzo Ondarra, Franciso Ibañez Iribarria, José Antonio de Donostia eta Josu Elberdinen obrak interpretatuko dituztenak.

Amaitzeko, hilaren 16ko kontzertu sinfoniko-koralak itxiko du aurtengo edizioa. Euskadiko Orkestrak, Ana Otxoa Pando sopranoak eta Andra Mari Abesbatzak, Pablo Urbinaren zuzendaritzapean, Juan Crisóstomo de Arriagaren eta Ricardo Sabadieren (heriotzaren bigarren mendeurrena eta jaiotzaren mendeurrena ospatzen ditugu, hurrenez hurren), Zuriñe F. Gerenabarrena, Tomás Aragüés eta Maurice Ravelen obrak biltzen dituen programa heterogeneoa emango dute ezagutzera.



MUSIKASTE – Semana de la Música Vasca, afronta en 2026 su edición número 54 siendo fiel al reto de seguir cumpliendo con los objetivos del festival, ejemplificados en el apoyo a creadores e intérpretes, el descubrimiento de su música, y el respaldo a los compositores actuales.

MUSIKASTE iniciará la presente edición con la jornada dominical el 10 de mayo, con el concierto dedicado a la música religiosa y la intervención del organista alemán Heinrich Walther, el cual presentará dos transcripciones para órgano de obras de Juan Crisóstomo de Arriaga y José María Usandizaga, para continuar acompañando a la Coral Andra Mari de Errenteria en la ejecución de tres partes de la *Misa Benedicta* de Tomás Garbizu. A continuación, el txistu centrará la atención con la interpretación de obras de Jerman Intxausti, Raimundo Sarriegi, Javier Busto y Ricardo Sabadie a cargo de Errenteriako Udal Txistulari Taldea junto con Karnaba Otxotea, Ereintza Dantza Taldea y Xepelar Bertso Eskola. La jornada finalizará con el concierto de Errenteriako Musika Banda dedicado a obras de Juan Crisóstomo de Arriaga, Jesús Guridi, Pedro Alberdi y Ricardo Sabadie.

Ya inmersos en la semana siguiente, cabe destacar los conciertos didácticos de los días 12 y 13 a cargo de Zaria Koru Eskola y liderados por su director Imanol Elizasu, el cual nos guiará en un viaje sonoro a través de distintos estilos y épocas teniendo a la voz como protagonista.

Además, el martes día 12 la música popular toma el relevo con *Joseba Tapiaren Hauspoa*, proyecto de Errenteriako Arte Eskola y el Conservatorio de Iparralde. En el mismo, alumnos de ambos centros mostrarán el trabajo realizado sobre el repertorio de Joseba, reinterpretándolo en pequeños grupos.

El día 13 la música contemporánea también será la protagonista con el espectáculo titulado *Sonografía Irudipenak*. Comandado por Garazi Navas y Manu Gaigne, se utilizarán grabaciones de audio y vídeo del pasado y la actualidad de diferentes lugares del País Vasco con el objetivo de crear piezas propias, teniendo en cuenta la evolución de dichos espacios sonoros.

El jueves día 14 se proyectará en la sala de Niessen Zinemak el documental titulado *Akelarre: marearen kontra*, un viaje emocional y musical por la trayectoria de uno de los grupos más singulares de la escena vasca.

El viernes, como ya es tradición, tendrá lugar el concierto dedicado a la música coral, en el que intervendrán formaciones procedentes de toda Euskalerría. Coro San Fermin Abesbatza (Zizur Menor, Navarra), Nurat Gazte Abesbatza (Vitoria – Gasteiz), Coral Ondarreta Abesbatza (Getxo, Bizkaia) y Zaria Koru Eskola (Errenteria, Gipuzkoa), serán los encargados de interpretar obras de Fermín Iriarte, Lorenzo Ondarra, Franciso Ibañez Irribarria, José Antonio de Donostia y Josu Elberdin, entre otros.

Para finalizar, el concierto sinfónico-coral del día 16 cerrará la presente edición. Euskadiko Orkestra, la soprano Ana Otxoa Pando y la Coral Andra Mari, bajo la dirección de Pablo Urbina, darán a conocer un heterogéneo programa con obras de Juan Crisóstomo de Arriaga y Ricardo Sabadie, de quienes celebramos el bicentenario de fallecimiento y centenario de nacimiento respectivamente, Zuriñe F. Gerenabarrena, Tomás Aragüés y Maurice Ravel.

MAIATZAK 10, 12, 13, 14, 15, 16 **MAYO**






ANDRA MARI Abesbatza

Ikus Amaierako kontzertua
Véase Concierto de clausura



WALTHER, Heinrich



J. M. Tife

Heinrich Waltherrek erlijio-musika eta pianoa Friburgoko Goi Mailako Musika Eskolan ikasi zituen; organoa Zsigmond Szathmáryrekin eta pianoa Jürgen Klodt eta Andreas Immerrekin. Ikasketak Toulouseko Kontserbatorioan Xavier Darasserekin hobetu zituen eta Dallasen (AEB) Robert Anderson eta Larry Palmerrekin. Nurembergeko Organoaren Nazioarteko Asteko lehiaketan saritua izan zen, baita San Antonio, Texasen ere.

1989tik Friburgoko Goi Mailako Musika Eskolako irakaslea da. 1976tik organista liturgiko gisa jarduten du. Hamarkadetan organoko irakasle izan da: hasieran Nurembergeko Maisu Kantoreen Kontserbatorioan eta Leipzigeiko Goi Mailako Musika Eskolan, eta ondoren Heidelberg eta Rottenburgekoetan. Halaber, irakasle gonbidatu gisa ikastaroak eman ditu Frantzia, Espainian eta Estatu Batuetan.

Bere kontzertu-jardunak Europako herrialde askotara, Ipar Amerikara, Mexikora, baita Singapurra, Koreara eta Japoniara ere eramán du. Errusiako eta Ukrainako elkarte filarmoniko askok gonbidatu dute, baita israeldarrek ere. Bere diskografia zabala eta askotarikoa da.

Heinrich Walther estudió música sacra y piano en la Escuela Superior de Música de Friburgo; órgano con Zsigmond Szathmáry y piano con Jürgen Klodt y Andreas Immer. Perfeccionó los estudios con Xavier Darasse en el Conservatorio de Toulouse y con Robert Anderson y Larry Palmer en Dallas (USA). Fue premiado en el concurso de la Semana Internacional de Órgano de Núremberg, así como en San Antonio, Texas.

Es profesor de la Escuela Superior de Música de Friburgo desde 1989. Ejerce como organista litúrgico desde 1976. Ha sido durante décadas profesor de órgano: inicialmente en el Conservatorio de Maestros Cantores de Núremberg y en la Escuela Superior de Música de Leipzig, y posteriormente en la de Heidelberg y Rottenburg. Asimismo, ha impartido cursos como profesor invitado en Francia, España y Estados Unidos.

Su actividad concertística le ha llevado a muchos países de Europa, a Norteamérica, México, así como a Singapur, Corea y Japón. Ha sido invitado por numerosas sociedades filarmónicas rusas y ucranianas, así como israelíes. Su discografía es extensa y diversa.

heinrich-walther.de

Errenteriako UDAL TXISTULARI TALDEA



Errenteriako udal txistulariek XVII. mendearen bigarren erditik izan dute lotura Udalarekin. 1651n dago jasota taldearen lehen erreferentzia. XX. mendean zehar, taldeak garapen handia izan zuen, eta hainbat musika ekitaldi eta lehiaketatan aintzatespena lortu zuen. Gerra Zibilaren ondoren, berriro ekin zioten lanari, eta Errenteriako bizitza kulturean funtsezko elementu gisa finkatu ziren.

2003an, taldea formalki berrantolatu zen oposizio prozesu baten bidez, udalerrian musika tradizio historiko horren jarraipena bermatuz. Taldearen helburua, musika egiteaz gain, txistularitza eta herriko musika tradizioa zaindu eta gazte zein helduen artean zabaltzea da. Gaur egun, Xabier Vesga, Itziar Busselo, Josu Izagirre eta Iñaki Letamendia musikariek osatzen dute taldea. Urrats sendoak ematen jarraitzen du herri musikaren transmisioan, txistularitza eta euskal musika tradizioari lotutako emanaldiak eskainiz.

Errenteriako Udal Txistulari Taldea, Euskal Herriko Txistulari Elkartearen kide gisa, beste udal txistulari taldeekin elkarlanean ere aritzen da euskal kulturaren eta tradizioaren zabalkundearen.

Los txistularis de Errenteria han tenido vinculación con el Ayuntamiento desde la segunda mitad del siglo XVII. La primera referencia del grupo está registrada en 1651. A lo largo del siglo XX, la banda tuvo un gran desarrollo, obteniendo el reconocimiento en diversos eventos y concursos musicales. Tras la Guerra Civil retomó su actividad y se consolidó como un elemento clave en la vida cultural de Errenteria.

En 2003, la banda se reorganizó formalmente mediante un proceso de oposición, garantizando la continuidad de esta tradición histórica musical en el municipio. El objetivo de la banda, además de hacer música, es cuidar la música y la tradición local en torno al txistu y difundirla entre personas jóvenes y adultas. Hoy en día, el grupo está formado por los músicos Xabier Vesga, Itziar Busselo, Josu Izagirre e Iñaki Letamendia. Continúan dando pasos firmes en la transmisión de la música popular, ofreciendo recitales relacionados con la txistularitza y la música tradicional vasca.

La Banda Municipal de Txistularis de Errenteria, como miembro de la Asociación de Txistularis de Euskal Herria, colabora también con otras bandas municipales de txistularis en la difusión de la cultura y tradición vasca.

Errenteriako MUSIKA BANDA



1864. urtean sortua, historian zehar izen ezberdinak jaso izan ditu: Sociedad Filarmónica (1864) eta Udal Musika Banda (1923), horrela 1948. urtean orain duen izena hartu zuen. Bandaren zuzendaritza Teodoro Gamón, Hipólito Guezala, José María Iraola, Gabino Zarranz, Valentín Manso, Ignacio Ubiria, José Luis Mate eta Carlos Rodríguez en ardurapean egon da; eta zuzendari gonbidatu gisa, M. Lorenzo de Reizábal, J. A. Sainz Alfaro, J. M. Tife Iparraguirre, X. Rallo Sagarzazu edota J. M. Guezala. Hainbat sari jaso izan ditu eta Donostiako Musika Hamabostaldian parte hartu zuen (1995 eta 1998an), Musikasten 1995etik egun arte; bai eta Oskorri taldearekin 2008 eta 2014ean. Nazioarte mailan eskaini izan ditu emanaldiak, Bordelen, Lousadan-Oporton (2002) edo Pariseko La Cigale antzokian (2010). 1996. urtetik Musika Banden Alardea antolatzen du. 2012an, Nazioarteko Konposizio Lehiaketa antolatu zuen Musikagileak elkartearekin batera. ACNUR, Siriako gerrateko kaltetuen edo bestelako kaltetuen aldeko kontzertu solidarioak ere antolatu izan ditu. 2016 urtean bere ibilbideagatik UPV-Orfeón Donostiarra saria jaso zuen. Gaur egun Alain Ayerdi Gurpegi eta Aitor Mitxelena Rubio dira Errenteriako Musika Bandaren zuzendariak.

Fundada en el año 1864, ha recibido diversos nombres a lo largo de su historia: Sociedad Filarmónica (1864) y posteriormente Banda Municipal (1923), hasta recibir en el año 1948 su actual denominación. Han sido sus directores Teodoro Gamón, Hipólito Guezala, José María Iraola, Gabino Zarranz, Valentín Manso, Ignacio Ubiria, José Luis Mate y Carlos Rodríguez, siendo dirigida asimismo por M. Lorenzo de Reizábal, J. A. Sainz Alfaro, J. M. Tife Iparraguirre, X. Rallo Sagarzazu o J. M. Guezala. Es poseedora de diversos premios y ha ofrecido conciertos especiales en la Quincena Musical de Donostia (1995 y 1998), Burdeos, Lousada-Oporto (2002), o en la sala La Cigale de París (2010); en Musikaste desde 1995 hasta el presente; así como con el grupo vasco Oskorri (2008 y 2014). En 2012 Errenteriako Musika Banda convocó un Concurso Internacional de obras para banda junto con la Asociación Musikagileak. La agrupación organiza asimismo conciertos solidarios ayudando a ACNUR, refugiados o colectivos damnificados. En el año 2016 fue galardonada con el Premio UPV-Orfeón Donostiarra a su trayectoria musical. Los actuales directores de la Banda de Música de Errenteria son Alain Ayerdi Gurpegi y Aitor Mitxelena Rubio.

igandea/domingo
10:00etan

Maria Donea Zeruratzea Parrokia
Parroquia Santa María de la Asunción

Juan Crisóstomo de Arriaga	<i>Symphonie à grand orchestre*</i> <i>III. Minuetto. Allegro</i> <i>IV. Allegro con moto</i>
José María Usandizaga	<i>Fantasia para cello y orquesta*</i> <i>I. Andante</i> <i>II. Allegro</i>
Tomás Garbizu	<i>Misa Benedicta</i> <i>Kyrie</i> <i>Gloria</i> <i>Credo</i>

Heinrich Walther, organoa

Andra Mari Abesbatza

Andoni Sierra, zuzendaria

*Organoarako transkripzioa: **Heinrich Walther**

Txistu emanaldia

11:45ean
Herriko Enparantza

Raimundo Sarriegui	<i>Beti maite*</i>
Javier Busto	<i>Axuri beltza*</i>
Jerman Intxausti Arregi	<i>Hondarribia (Orripekoea)**</i>
Jerman Intxausti Arregi	<i>Hondarribia (Arin-arina)**</i>
Jerman Intxausti Arregi / J. Hdz. Arsuaga, harm.	<i>Xamot (Biribilketa)</i>
Jerman Intxausti Arregi	<i>Kimu berri (Biribilketa)</i>
Jerman Intxausti Arregi	<i>Zortzikoa</i>
Bilintx / J. I. Ansorena, mold.	<i>Potajiarena***</i>
Jerman Intxausti Arregi / J. Hdz. Arsuaga, harm.	<i>Oria (Orripekoea)**</i>
Jerman Intxausti Arregi / J. Hdz. Arsuaga, harm.	<i>Aldaba txiki (Arin-arina)**</i>
Ricardo Sabadie / hitzak, Manuel Lekuona / J. I. Ansorena, mold.	<i>Agur txoko maitea****</i>
Ricardo Sabadie	<i>Txuri Urdin****</i>

***Karnaba Otxotea /**
******Karnaba Otxotearen laguntzaz**
Sergio Zapirain Mendizabal, zuzendaria
****Ereintza Dantza Taldea**
*****Xenpelar Bertso Eskola**
Errenteriako Udal Txistulari Taldea
Xabier Vesga Elizalde, zuzendaria

Banda emanaldia

Juan Crisóstomo de Arriaga	<i>Marcha militar*</i>
Juan Crisóstomo de Arriaga / José Franco [Ribate], transkr.	<i>Nada y mucho (Capricho sinfónico)</i>
Jesús Guridi / Tomás Aragüés, transkr.	<i>Diez melodías vascas</i> <i>I. Narrativa</i> <i>VI. Amorosa</i> <i>X. Festiva</i>
Pedro Alberdi / José Luis Ollo, mold.	<i>Cantos Vascos</i>
Ricardo Sabadie	<i>Oro en la tarde (Pasodoble)</i>
Ricardo Sabadie / L. Zurdo, mold.	<i>Txuri Urdiñ</i>

12:45ean
Koldo Mitxelena Ikastetxea

***Arista & Jáureguik 1901ean**
Bibon egindako edizioan oinarritutako
Angel Brizen
instrumentazioaren berrikuspena

Errenteriako Musika Banda
Alain Ayerdi Gurpegui, zuzendaria

Igande jarduna
Jornada dominical

Herri Arte Eskola

Herri Arte Eskola Erreterian (Gipuzkoa) kokatutako udal eskola publikoa da, eta hezkuntza artistikoaren hainbat diziplinatan eskaintza zabala du. Azken urteotan, Musika eta Dantza Eskolatik Arte Eskolarako trantsizioa eginez, bere hezkuntza egitasmoa berritzen eta eguneratzen ari da.

Antzerkia, Arte Plastikoak eta Ikusizkoak, eta Hitzaren eremuko diziplinak oinarri hartuta, bere hezkuntza eskaintza bost adarkatze artistikotan egituratzen du; herritarrek 8 urtetik aurrera, adin-mugarik gabe, aukeratu ditzaketenak. Halaber, Diziplina Anitzeko Hastapen Artistikoa izeneko proposamen pedagogikoa eskaintzen du, 4 eta 7 urte bitarteko ikasleentzat, murgiltze-eredu gisa. Musikako Ikasketa Profesionalak egiteko aukera ere badu.

HAEk maila desberdinetako hainbat Trikiti Talde ditu, eta ikasturtean zehar ekitaldi ugarian parte hartzen dute, bai herrian bertan bai kanpoan ere. Oskar Estanga gidari dutela, Atlantikaldia eta Musikaste jaialdietan, Euskal Herriko hainbat ospakizunetan, eta nazioarteko kultur trukeetan ere aritzen dira.

Herri Arte Eskola es una escuela pública municipal ubicada en Erretería (Gipuzkoa) con una amplia oferta en diferentes disciplinas artísticas. En los últimos años está renovando y actualizando su proyecto educativo realizando la transición de Escuela de Música y Danza a Escuela de Arte, de forma que junto a las anteriores, el Teatro, las Artes Plásticas-Visuales y el ámbito de la Palabra conforman 5 ramificaciones artísticas a las que puede optar la ciudadanía a partir de los 8 años y sin límite de edad. También tiene establecida, como modelo de inmersión de los más pequeños, la propuesta pedagógica denominada Iniciación Artística Multidisciplinar, para alumnado de 4 a 7 años. Además se tiene la opción de realizar Estudios Profesionales de Música. HAE dispone de varios grupos de trikitixa de diferentes niveles y durante el curso actúan en innumerables citas tanto en el municipio como fuera de él. Bajo la tutela de Oskar Estanga participan en festivales como Atlantikaldia o el propio Musikaste, en celebraciones de Euskal Herria y efectuando intercambios culturales en el extranjero.



IPARRALDEKO KONTSERBATORIOA



Iparraldeko Kontserbatorioa Euskal Hirigune Elkargoaren hezkuntza eta kultur erakunde autonomoa da, eta bere baitan Maurice Ravel kontserbatorioa (Iparraldeko Kontserbatorioa) eta Iparraldeko Orkestra (Orcheste du Pays Basque) biltzen ditu. Bi erakundeek euskal eskualde osoan hezkuntza eta irakaskuntza garatzea dute xede, baita interpretazioa eta sorkuntza lurralde osoan sustatzea ere. Kontserbatorioak musika, dantza eta antzerki diziplinak eskaintzen ditu nagusiki Baionan, baina baita Biarritz, Amikuze-Iholdi-Oztibarre eta Hendaian dituen egoitzetan ere. Euskal Hirigune Elkargoaren sorrerarekin eskualdeko zein kanpoko udalerrien, elkarten eta artisten arteko elkarlana nabarmen handitu da. Euskal musika eta dantza departamentuaren baitan 2024/25 ikasturtetik Joseba Tapia da trikiti irakaslea.

El Conservatorio de Iparralde es una institución autónoma en el seno de la Mancomunidad del País Vasco y en ella alberga conjuntamente tanto el Conservatorio Maurice Ravel (Conservatorio de Iparralde) como la Orquesta de Iparralde (Orchestre du Pays Basque), y ambos tienen el objetivo de impulsar la educación y la enseñanza, la interpretación y la creación para toda la región vasca. El Conservatorio imparte las disciplinas de música, danza y teatro mayormente en Baiona, pero también en las sedes de Biarritz, Amikuze-Iholdi-Oztibarre y Hendaia. Con la creación de la Comunidad de Aglomeración del País Vasco se ha incrementado notablemente la colaboración entre los municipios de la región o de fuera, así como con el tejido asociativo y los artistas. Joseba Tapia es profesor de trikitiba en el seno del Departamento de música y danza tradicional vasca desde el curso 2024/25.

Iparraldeko Kontserbatorioa

Trikitixa: Aiala Etcheverry-Latapy, Xabier Martinez de Barranco, Eztitxu Lecuona, Ilune Dufau, Maialen Çuburu
Ahotsa: Ainhoa Sarasua-Lascaray, Layla Serrano, Maialen Erviti, Matilde Denuncq, Cyril Arnoux, Marie Laure de Marignan, Nicole Etchart, Louis Moquet, Nicolas Villeneuve, Anna Giron
Mandolina: Ximun Curutchet
Biolina: Julen Lezaun
Kitarra: Xabi Biscay
Bateria: Eneko Laxague
Baxua: Julien Linkemper

Herri Arte Eskola

Trikitixa: Mattin Zalakain, Alaia Gomez, Arhane Miner, Ane Gonzalez, Leire Miguelez, Maialen Prego, Lia Salas, Satoko Hosomi, Josetxo Agirre, Jose Mari Balerdi, Maite Blazquez, Oihan Sanchez, Arhane Sanz, Enara Manzano, Maiana Gracia, Ilargi Arotzena, Maider Labaka, Iker Gomez, Izaskun Ezeiza, Maialen Otegi, Jone Jaunarena, Eneko Apaolaza, Ane Elizetxea
Panderoa: Ane Gonzalez, Juanari Dominguez, Davida Iwinosa, Elene Badiola, Jokin Berra, Itziar Garbizu, Itziar Arbelaitz, Gotzon Camacho, Begoña Sanz, Nere Mujika, Gema Oiarzabal, Itziar Otegi, Ixiar Yurrita, Arantxa Iragorri, Udane Barreiro, Elene Carreto, Jokin Veintemillas, Mairi Maya, Iraide Zurutuza, Maren Gomez, Julen Garcia, Amale Eneritz Alcaraz, Irene Barbier, Eñaut Alcaraz, Yolanda Mitxelena
Pianoa: Markel Igartua
Bateria: Xalbat Maya
Kitarra: Josu Arotzena
Biolina: Oihan Sadlier
Dultzaina, alboka eta saxoa: Haritz Ezeiza, Edel Telletxea

Herri Arte Eskola-k hilabeteetako egitasmo baten emaitza den emanaldi bat aurkeztuko du. Azken urteetan Musikaste jaialdiarekiko garatutako lan ildoan jarraituz oraingo honetan eskolako trikiti ikasleak Joseba Tapiarekin harremanetan jarri dira berekin ikasturtean topaketak burutu eta bere errepertorioa talde txikietan berrinterpretatuz. Proiektu honetarako Iparraldeko Kontserbatorioko (Baiona) ikasleak gonbidatu dira eta hala emaitza bi ikastegietako hainbat musika instrumentutako ikasleen elkarlana da.

Herri Arte Eskola presenta una actuación que es el resultado de un proyecto desarrollado durante meses. Siguiendo con la línea de trabajo desarrollada en los últimos años de cara al festival Musikaste, en esta ocasión los alumnos de trikitixa de la escuela se han puesto en contacto con Joseba Tapia, con quien han realizado encuentros durante el curso y reinterpretado su repertorio en pequeños grupos. Para este proyecto se ha invitado a alumnos del Conservatorio de Iparralde (Baiona), y el resultado es fruto de los alumnos de ambos centros de diferentes instrumentos.

Joseba Tapia-ren Hauspoa

Errenteriako Herri Arte Eskola eta
Iparraldeko Kontserbatorioko trikiti ikasleen arnasa

maiatza **12**
mayo

astearte/martes
19:00etan
Niessen Kulturgunea

Joseba Tapia-ren musika

Elkarrekin

Parrandango

Txapeloker

Lehen hamar lagun ginen etxean

Astotxo bat baneuko

Besamotza

Real politik

Wafa

Non ote dauden

Other mind

Biba Berango

Aritmetika arazoak

Maitatzen zaitudalako

Txapelau

Compostelako erromesa

Testua, Joxe Zapiain

Trad. / Joseba Tapia, mold.

Testua, Jakoba Errekondo

Testua, Koldo Izagirre

Testua, Koldo Izagirre

Testua, Bernardo Atxaga

Testua, Gabriel Aresti

Testua, Koldo Izagirre

Testua, Joxean Ormazabal

Testua, Jon Sarasua

Testua, Koldo Izagirre

GAIGNE BEOBIDE, Manu

Donostian (Gipuzkoa) jaio zen 1995ean. 2020an, musika garaikideko interpretazioko masterra amaitu zuen Escola Superior de Música e Artes do Espectáculo-n (Porto), Gipuzkoako Foru Aldundia-ren arte-ikasketak egiteko bekari esker. Aurretik, Musikako Goi Mailako ikasketak egin zituen Musikene-n, perkusioko espezialitatean, eta 2018an amaitu zituen. 2019an, Nano Drumming Grupo de Percussao akademiako kide izan zen.

2025ean, Haatik dantza konpainiaren OTS emanaldirako espazio sonoroa, musika eta musika-hautaketa sortu eta interpretatu zituen. 2024an, Enbata konpainiaren *Urraska* ikuskizuna estreinatu zuen, eta haren musika sortu eta konposatu zuen. 2023an, *Huesos* proiektu eszenikoa aurkeztu zuen Puy Barral poetarekin batera. Jone Amezaga dantzariarekin elkarlanean, TARTAR kolektiboa sortu zuen, eta harekin 2022an *Remedios Vals* pieza aurkeztu zuten, musikaren eta dantzaren arteko hizkuntza komunaren inguruan gogoeta egiten duena.

Interpretatzaile gisa, honako taldeekin aritu da, besteak beste: Bilbao Sinfonietta, Sigma Project, Remix Ensemble, Haatik, Mirua, Proyecto Villalacre, Hatxe, Sarrabete, Gori Gori, Gasteizko Udal Banda eta Bilbao Orkestra Sinfonikoa. Halaber, musikari gisa parte hartu zuen *La columna infame* (2021) antzezlanean eta Circo de Natal do Coliseu-n (2020).



Nace en Donostia en 1995. Finalizó el máster en performance de música contemporánea en la Escola Superior de Música e Artes en Oporto en 2020, gracias a una beca de la Diputación Foral de Gipuzkoa para realizar estudios artísticos. Anteriormente había cursado estudios superiores de Música en Musikene, especializados en percusión, terminados en 2018. En 2019, formó parte de la academia Nano Drumming Grupo de Percussao.

En 2025 crea e interpreta el espacio sonoro, la música y la selección musical de la actuación OTS de la compañía de danza Haatik. En 2024 estrena la actuación *Urraska* de la compañía de danza Enbata, de la cual compone y crea la música. En 2023 presentó el proyecto escénico *Huesos* junto a la poeta Puy Barral. Junto a la bailarina Jone Amezaga creó el colectivo TARTAR con el que en 2022 presentaron la pieza *Remedios Vals*, que reflexiona sobre el lenguaje en común entre la música y la danza.

Como intérprete ha actuado con grupos como Bilbao Sinfonietta, Sigma Project, Remix Ensemble, Haatik, Mirua, Proyecto Villalacre, Hatxe, Sarrabete, Gori Gori, la banda municipal de Vitoria o la BOS. También participó como músico en la obra de teatro *La columna infame* (2021) o en el Circo de Natal do Coliseu (2020).



Usansolon (Bizkaia) jaio zen 1995ean. 2021ean Musikene-n (Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia) Musika Interpretazioko Irakaskuntza Artistikoetako Masterra amaitu zuen, akordeoi espezialitatean; 2020an, berriz, Euskal Musika Tradizionaleko Graduondoko Espezializazio Ikastaroa egin zuen.

Hainbat proiektutan parte hartu du, musika garaikidea, klasikoa, tradizionala eta bestelako estiloak interpretatuz, eta bakarlari gisa Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin (BOS) aritu da ere. Diziplina ezberdinetako artistekin elkarlanean aritzen da maiz, dantza, poesia, antzerkia edo instalazio artistikoekin lotutako proiektuetan, baita soinu-bandetan eta inprobisazio librearen inguruko ekimenetan ere, bakarka zein taldean.

Hainbat sari jaso ditu eta kontzertuak eskaintzen ditu estatu mailan zein nazioartean; besteak beste: LIMO Zikloa (CentroCentro, Madril), Xornadas de Música Contemporánea (Santiago de Compostela), Diacronías Jaialdia (Las Rozas), Phonos Fundazioa (UPF, Bartzelona), Meakusma Jaialdia (Belgika), Next Festival (Bratislava), Jauna Muzika (Vilnius), etab.

Gainera, artista askorekin grabatu eta argitaratu du (Álex Reviriego, Vasco Trilla, Maite Larburu, Bilbao Sinfonietta, Francisco José Domínguez Robles, Maite Arroitauregi, Nerea Alberdi, Ibon RG, etab.).

Nace en Usansolo (Bizkaia) en 1995. En 2021 finalizó el Máster en Enseñanzas Artísticas de Interpretación Musical en la especialidad de acordeón en Musikene (Centro Superior de Música del País Vasco), realizando también en 2020 el Curso de Especialización de Postgrado en Música Tradicional Vasca.

Ha participado en numerosos proyectos interpretando música contemporánea, clásica, tradicional y de otros estilos, llegando a tocar como solista con la Orquesta Sinfónica de Bilbao (BOS). Colabora asiduamente con artistas de diferentes disciplinas en proyectos con danza, poesía, teatro o instalaciones artísticas, y también en bandas sonoras e iniciativas en torno a la improvisación libre, tanto a solo como en grupo.

Ha recibido varios premios y ofrece conciertos a nivel estatal e internacional, entre otros: Ciclo LIMO (CentroCentro, Madrid), Xornadas de Música Contemporánea (Santiago de Compostela), Festival Diacronías (Las Rozas), Fundación Phonos (UPF, Barcelona), Meakusma Festival (Bélgica), Next Festival (Bratislava), Jauna Muzika (Vilnius), etc.

Además, ha grabado y publicado con diferentes artistas provenientes de mundos muy lejanos entre sí (Álex Reviriego, Vasco Trilla, Maite Larburu, Bilbao Sinfonietta, Francisco José Domínguez Robles, Maite Arroitauregi, Nerea Alberdi, Ibon RG, etc.).



Sonografía Irudipenak

Sonograma baten antzera, gure soinu-uhinek euskal geografia zeharkatu dute. Euskal Herriko toki ezberdinetan garai batean egindako audio zein bideo grabaketak eta toki horietan gaur egun egindako zelai-grabaketak erabiliz, pieza propioak sortu ditugu, leku hauen soinu-espazioen bilakaera kontuan hartuz. Grabaketa zaharrak, gure sorkuntzak eta gaur egun toki horietan ematen diren fenomeno auditiboak lotuz.

Como un sonograma, nuestras ondas sonoras han recorrido la geografía vasca. Utilizando antiguas grabaciones de audio y vídeo realizadas en diferentes lugares del País Vasco y grabaciones de campo realizadas en la actualidad en dichos sitios, hemos creado varias piezas propias, teniendo en cuenta la evolución de los espacios sonoros de estos lugares. Amalgamando grabaciones de antaño, nuestras creaciones y los fenómenos auditivos que hoy se dan allí.

Urepele (2025), perkusioa, akordeoia, elektronika.

Erreterria (2026)*, perkusioa, akordeoia, elektronika, bideoa.

Usurbil (2025), perkusioa, akordeoia, elektronika, bideoa.

*Erabateko estreinaldia

Konposizioa, elektronika, bideoaren sorkuntza, zelai-grabaketak:

Manu Gaigne eta **Garazi Navas**

Interpretazioa:

Manu Gaigne, perkusioa, ahotsa

Garazi Navas, akordeoia, ahotsa

Elektronikaren nahasketa eta masterizazioa:

Xabier Erkizia

Soinu teknikaria:

Juan Bautista Larburu (Aieka)

Arte diseinua:

Joseba Agirrezabalaga

AKELARRE Marearen kontra



Akelarre: marearen kontra filmaren proiektioak Euskal Herriko musika-eszenako talde berezietako baten ibilbideari buruzko bidaia emozional eta musikala proposatzen du. Hiru hamarkada baino gehiago oholtza gainean eman ondoren, Akelarrek etapa bati amaiera ematen dio dokumental honen bidez; taldearen historia errebasatzeaz gain, musikaren eta bizitzaren ulertzeko modu bati egindako aitortza ere bada.

1973an Soraluzen sortua, testuinguru zail batean euskararen aldeko apustua egin zuten aitzindarietako bat izan zen taldea, eta bere ibilbidean nortasun propio sendoa eraiki zuen. Urteek aurrera egin ahala, hasierako formazioetatik abiatu eta Euskal Herriko dantzaldietan eta kontzertuetan erreferente bilakatu zen, soinu eta eszenaratze zainduagatik eta belaunaldi ezberdinetako entzuleekin konektatzeko izan zuten gaitasunagatik nabarmenduz.

Dokumentalak ibilbide hori modu kronologikoan jarraitzen du, taldetik igaro diren musikari askori eta haien inguruko hainbat eragileri ahotsa emanez. Artxiboko irudien, argazkien eta testigantzen bidez —Joseina Etxebarria kazetaria gidari— une esanguratsuak berreraikitzen dira: *Asfaltuko lorea* (1980) lehen diskoaren argitalpena, Anje Duhalderen etorrera edota plazak eta jaiak betetzeko gai izan zen talde baten sendotzea. Aldi berean, publikoarekiko harreman estua ere azpimarratzen da, bidean bidelagun leiala izan baitzen, joera komertzialen aurrean nortasunari eutsiz.

Akelarre: marearen kontra, azken finean, musika gaintitzen duen abentura kolektibo baten erretratua da: talde baten, haren jarraitzaileen eta garai oso baten memoria partekatua.

La proyección de *Akelarre: marearen kontra* propone un viaje emocional y musical por la trayectoria de uno de los grupos más singulares de la escena vasca. Tras más de tres décadas sobre los escenarios, Akelarre cierra una etapa vital con este documental que no solo recorre su historia, sino que también rinde homenaje a una manera de entender la música y la vida.

Fundado en 1973 en Soraluze, el grupo fue pionero en apostar por el euskera como lengua principal en un contexto poco propicio, construyendo una identidad propia que marcaría su recorrido. A lo largo de los años, Akelarre evolucionó desde sus primeras formaciones hasta convertirse en una banda de referencia en las verbenas y conciertos de Euskal Herria, destacando por su ambición sonora y escénica, así como por su capacidad para conectar con el público generación tras generación.

El documental sigue cronológicamente esta trayectoria, dando voz a muchos de los músicos que formaron parte del grupo y a figuras clave de su entorno. A través de imágenes de archivo, fotografías y testimonios —con el periodista Joseina Etxebarria como hilo conductor— se reconstruyen momentos decisivos como la publicación de su primer disco *Asfaltuko lorea* (1980), la incorporación de Anje Duhalde o su consolidación como banda capaz de llenar plazas y fiestas populares. También se pone en valor su relación con el público, fiel compañero de viaje en un camino marcado por la autenticidad y la resistencia frente a las tendencias comerciales.

Akelarre: marearen kontra es, en definitiva, el retrato de una aventura colectiva que trasciende lo musical para convertirse en memoria compartida: la de una banda, la de sus seguidores y la de toda una época.

Zuzendaritza:

Xabier Zabala Agirrezabal eta
Carlos Iglesias Serrano

Gidoia:

Mónica Calvo

Ekoizpen exekutiboa:

Bideografik

Argazki zuzendaria eta irudia:

Eukeni Arriortua Barrenetxea

Zuzeneko soinua:

Miguel Ramírez Cantero

Muntaketa eta postprodukzioa:

Xabier Zabala A.

Soinu postprodukzioa:

Mikel F. Krutzaga

Jatorrizko musika:

Akelarre

Ekoipena:

Carlos Iglesias

Produkzio laguntzaleak:

Illart Gumuzio Larrazabal,
Ainhoa Murgoitio Molina,
Ibai Urkiza Etxebarria

OZZINEMA

Coro SAN FERMIN Abesbatza



1976an Fermin Iriartek San Fermin Ikastolan (Zizur Txikia, Nafarroa) sortutako ahots zuriko abesbatza da.

Eguno taldea txikitatik kantuan aritutako ikasle ohiek osatzen dute. Helburu nagusiak bi dira: Euskal musika eta musika unibertsala interpretatzea. Horretarako, erreperitorioak estilo anitzak hartzen ditu barne, gregorianotik hasi eta musika garaikideraino, baita nazioarteko kantuak ere.

Abesbatzak a capella zein instrumentuekin lagundutako lanak interpretatzen ditu, eta 16 emakume konpositoreen obrak biltzen ditu bere erreperitorioan.

Haur eta gazte abesbatza gisa, lehen sariak lortu ditu lehiaketa ugaritan, eta Pueri Cantores eta Europa Cantat erakundeetako kide gisa, kontzertuak eskaini ditu Erroma, Paris eta Brusela bezalako hirietan. Sailkapen-lehiaketa bat gainditu ondoren, Nafarroaren ordezkari izan zen Salamancan egindako Polifoniako hiru Topaketa Nazionaletan. Nafarroako Gobernuaren gonbidapenez, Sevillako 92ko Erakusketan parte hartu zuen, Lorenzo Ondarrak pianoan lagunduta.

Bere ibilbidean, 81 obra garaikide estreinatu ditu eta hamar grabaziotik gora egin ditu, zuzenean zein estudioan, horietako asko nazioarteko abesbatzekin elkarlanean.

Musikasten eskainiko duten bostgarren emanaldian, José Luis Ansorena omendu eta gogora ekarriko dute.

Fundado en 1976 por Fermin Iriarte en San Fermin Ikastola (Zizur Menor, Navarra), este coro está compuesto por exalumnas que han cantado desde la infancia. Su misión es interpretar música vasca, así como música universal. Su repertorio abarca desde el canto gregoriano hasta la música contemporánea, incluyendo clásicos universales y cantos de diversas culturas, tanto a capella como acompañados por instrumentos. Su repertorio recoge obras de 16 compositoras.

Como coro infantil y juvenil, ha obtenido primeros premios en numerosos concursos y, como miembro de Pueri Cantores y Europa Cantat, ha ofrecido conciertos en ciudades como Roma, París y Bruselas. Tras un concurso eliminatorio, ha representado a Navarra en tres Encuentros Nacionales de Polifonía en Salamanca. Invitado por el Gobierno de Navarra, participó en la Expo de Sevilla 92 junto a L. Ondarra al piano.

En su trayectoria, ha estrenado 81 obras contemporáneas y realizado más de 10 grabaciones, tanto en directo como en estudio, muchas de ellas colaborando con coros internacionales.

Su quinta participación en Musikaste se celebra con un recuerdo y gratitud hacia J. L. Ansorena.

NURAT GAZTE Abesbatza



Nurat Gazte Abesbatza Musikalde Kultura Elkarteari atxikita dagoen Gasteizko abesbatza gaztea da, eta 2012an Arabako koru-kultura sustatzeko sortu zen. Elkarte hau eskualdean bakarra da, eta adinaren arabera hiru abesbatza biltzen ditu: gazteak, haurrak eta helduak (Nurat Gazte Abesbatza, Lumturi Haur Abesbatza eta Oskarbi Abesbatza). Nurat abesbatzak abesteko eta abesbatzaren esparruan hazteko pasioa duten 18 eta 35 urte bitarteko abeslariak biltzen ditu.

Bere erreperitorioa askotarikoa da, musika zaharretik garaikidera, eta proiektu ugartan parte hartu du. Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin *El Mesías* partehartzailea proiektuan parte hartu zuen, eta 2012an, Gernikako bonbardaketaren 25. urteurrenean, Berlinera joan zen. 2014 eta 2017 bitartean, zarzuelak eta operak interpretatu zituen, eta Vitoria-Gasteizko Udal Musika Bandarekin hainbat emanaldi eskaini ditu. 2013an, Musikasteko koruen egunean parte hartu zuen.

Zenbait abesbatza-trukeetan parte hartu izan du, tartean 2018an Suediako LTH Kören koruarekin eginikoa nabarmenduz. 2019an, Francisco Ibañez Irribarriaren musikagileari buruzko monografiko bat aurkeztu zuen. Pandemiaren ondoren, jarduerari berriro heldu zion, Bach-en *Gabonetako Oratorioa* eta 2023an *Carmina Burana* eskainiz. Gaur egun, *Arabako Ura Bere Bidean Korala* proiektuko partaide da.

NURAT Gazte Abesbatza es un coro juvenil de Vitoria-Gasteiz, parte de la Asociación Musikalde Kultura Elkarte, creada en 2012 para promover la cultura coral en Álava. Esta asociación es única en la región, al contar con tres coros según la edad: jóvenes, niños y adultos (el propio Nurat Gazte Abesbatza, Lumturi Haur Abesbatza y Oskarbi Abesbatza). Nurat reúne a coralistas de 18 a 35 años, unidos por su pasión por el canto y el crecimiento en el ámbito coral.

Su repertorio abarca géneros diversos, desde música antigua a contemporánea, y ha colaborado en numerosos proyectos. Destacan su participación en *El Mesías* Participativo con la Orquesta Sinfónica de Euskadi y su viaje a Berlín en 2012 por el 25 aniversario del bombardeo de Gernika. Entre 2014 y 2017, colaboraron en zarzuelas y óperas, y con la Banda Municipal de Música de Vitoria-Gasteiz en varias ocasiones. Participó el día coral de Musikaste en 2013.

Nurat ha participado en intercambios corales, destacando uno con el coro sueco LTH Kören en 2018. En 2019, presentaron un monográfico sobre el compositor Francisco Ibañez Irribarria y, tras la pandemia, retomaron actividades, incluyendo el *Oratorio de Navidad* de Bach y *Carmina Burana* en 2023. Actualmente, forman parte del proyecto *Ura Bere Bidean Korala* de Álava.

Coral ONDARRETA Abesbatza



Las Arenasen (Getxo, Bizkaia) 1967an sortua, Coral Ondarreta Abesbatza 54 ahotsetako koro mistoa da, eta bere helburua musika maila gorena lortzea da. Bere erreperitorioak obra ugari biltzen ditu, operak, zarzuelak, oratorioak eta euskal musika polifonikoa barne. Nazioarteko orkestrekin lankidetzan aritu da, esate baterako: Ukrainako Sinfonikoa eta Bilboko Orkestra Sinfonikoa.

Alemania, Suitza, Italia eta Frantzia aritu da, baita Euskal Herri osoan eta Espainiako hainbat erkidegotan ere. Errenazimendu, Barroko eta Romantizismo garaiko obretan espezializatu da, Andrea Gabrielli eta Tomás Luis de Victoria bezalako autoreak nabarmenduz. Interpretatu dituen obren artean azpimarragarriak dira Pergolesiren *Magnificat*, Mozarten eta Fauréren *Requiem*-ak, baita Mozarten *Misa Brevis en Re M* ere.

Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin, Bilboko Koral Elkartearekin eta tokiko beste abesbatzekin batera, Händelen *El Mesías*-en parte hartu izan du, Euskalduna Jauregian. 2021ean, Amancio Prada kantautorearekin batera, *Cántico espiritual* kontzertuan arrakastaz parte hartu zuen.

2013az gozotik, Manuel Torre Lledó-ri lekukoa hartuta, Iñaki Moreno Navarro maisuak zuzentzen du abesbatza. Iñaki Filosofian doktorea da, Bilboko Koral Elkartearen zuzendari ohia, eta gaur egun Deustuko Unibertsitatean Musika Historia irakasten du.

Harekin batera, Anabe Hernández Soengas irakaslea eta Lupe López Castelo pianista nabarmentzen dira.

Fundada en 1967 en Las Arenas (Getxo, Bizkaia), la Coral Ondarreta Abesbatza es un coro de 54 voces mixtas que busca la excelencia musical. Su repertorio abarca diversas obras, incluyendo óperas, zarzuelas, oratorios y música polifónica vasca. Ha colaborado con orquestas internacionales como la Sinfónica de Ucrania y la de Bilbao.

Ha actuado en países como Alemania, Suiza, Italia y Francia, así como en todo el País Vasco y diversas comunidades españolas. La coral se especializa en obras del Renacimiento, Barroco y Romanticismo, destacando autores como Andrea Gabrielli y Tomás Luis de Victoria. Entre sus interpretaciones se encuentran el *Magnificat* de Pergolesi y los *Requiem* de Mozart y Fauré o la *Misa Brevis en Re M* del mismo Mozart. Ha participado habitualmente, junto a la Orquesta Sinfónica de Bilbao, la Sociedad Coral de Bilbao y otros coros locales, en *El Mesías* de Händel, en el Palacio Euskalduna de Bilbao. En 2021, participó con éxito en el concierto *Cántico Espiritual* junto al cantautor Amancio Prada.

Desde 2013, el maestro Iñaki Moreno Navarro dirige la coral, tras el legado de Manuel Torre Lledó. Iñaki, Doctor en Filosofía y exdirector de la Coral de Bilbao, también enseña Historia de la Música en la Universidad de Deusto. Junto a él, destacan la profesora Anabe Hernández Soengas y la pianista Lupe López Castelo.

ZARIA Koru Eskola



Zaria Koru Eskola Erreterian (Gipuzkoa) sortu zuen bere zuzendariak, Imanol Elizasu Lasak, 2015ean. Koru-diziplinaren hainbat arlotan formazioa eskaintzen du. Ahotsa da musika-tresna nagusia. Ahots-emisioa, kantuaren bidezko musika-hizkuntza eta abesbatza-jarduera dira musika-prestakuntzaren oinarriak.

Pertsona bakoitzari diziplina, autoestimua, elkartasuna eta errespetua sustatzen dituen giro batean, bere ahots- eta musika-gaitasunak garatzen laguntzea du xede. Eskola adin-taldean arabera antolatuta dago: tailer musikala, ZariaTxiki, ZariaTxo, ZariaGaz eta Zaria. Errepertorio koral zabala eta askotarikoa lantzen du, musika klasikoa, musikalak eta pop eta rock bezalako estilo modernoak barne. Zariak estatuko zein nazioarteko abesbatzekin egiten du lan, kultura berriak Erreteriarara ekartzeko eta bere abeslarien hazkunde pertsonal eta artistikoa sustatzeko. Elkarlan horien ondorioz Estatu Batuetara, Frantziara, Alemaniara eta Txekiar Errepublikara ere bidaiatu du. Era berean, Euskal Herriko poetekin, musikariek eta artistekin jarduten du elkarlanean, besteak beste, Benito Lertxundi, Jon Maia Soria, Patxi Zubizarreta, Maddi Oihenart, Pello Ramírez, Kukai, eta Et Incarnatus eta Kamerata Oiasso orkestrak. Ejea eta Candásko lehiaketetan ere parte hartu du, eta azken honetan Lehen Saria eskuratu du.

Zaria Koru Eskola, la escuela de canto coral, fue fundada por su actual director, Imanol Elizasu Lasa, en 2015 en Erreteria (Gipuzkoa). Ofrece formación en diversos ámbitos de la disciplina coral. La voz es el instrumento principal. Su emisión, el lenguaje musical a través del canto y la actividad coral son los fundamentos de la formación musical. Su misión es ayudar a cada persona a desarrollar su potencial vocal y musical en un entorno que fomenta valores como la disciplina, la autoestima, la solidaridad y el respeto. La escuela está organizada en diferentes grupos según la edad: el taller musical, ZariaTxiki, ZariaTxo, ZariaGaz y Zaria. La escuela trabaja un repertorio coral amplio y variado que incluye música clásica, musicales y estilos modernos como pop y rock. Zaria colabora con coros nacionales e internacionales para traer nuevas culturas a Erreteria y fomentar el crecimiento personal y artístico de sus cantantes. Estas colaboraciones les han llevado a Estados Unidos, Francia, Alemania o la República Checa. También colabora con poetas, músicos y artistas del País Vasco como Benito Lertxundi, Jon Maia Soria, Patxi Zubizarreta, Maddi Oihenart, Pello Ramírez, Kukai y las orquestas Et Incarnatus y Kamerata Oiasso. Ha participado también en los concursos de Ejea y de Candás (Primer Premio).



Coro SAN FERMIN Abesbatza

maiatza
mayo **15**

Fermín Iriarte
Pascual Aldave / hitzak, Rafael Alberti
Lorenzo Ondarra
Lorenzo Ondarra
Luis Elizalde

Ave Maria
Nana del niño muerto
Loa loa, Maro marotxu (Lo-kantak, 1)
Mandoa eta astoa (Autu-mautuak, 3)
Chajras

ostirala/viernes
19:30ean
Lekuona Fabrika

Kilian Carrillo, pianoa
Fermín Iriarte, zuzendaria

NURAT GAZTE Abesbatza

Francisco Ibañez Iribarria
Jesús Guridi / Luis de Aramburu, egok.

Ave Maria
Tres canciones vascas
Alabatua
Aritz adarrean
Sant Urbanen
*Adios izar ederra**

Lur Estibalitz

Iñigo Perea, pianoa
Nagore Alangua, zuzendaria

Coral ONDARRETA Abesbatza

José Antonio de Donostia
Benito Lertxundi /
Mikel Zuazabeitia, mold.
Iñaki Moreno Navarro
Josu Elberdin

O lesu mi dulcissime
Baldorba
Neure vioçean barruna
Segalariak

Lupe López Castelo, perkusioa, pianoa
Iñaki Moreno Navarro, zuzendaria

ZARIA Koru Eskola

Herrikoia / hitzak, Bilintx /
David Azurza, harm.
Pello Ramirez
Junkal Guerrero /
hitzak, Jon Maia Soria

Loriak udan
*Labarretik**
*Kantu batean goaz**

Imanol Elizasu Lasa,
pianoa eta zuzendaria

*Erabateko estreinaldia

Koruen eguna
Día coral

OTXOA PANDO, Ana



Ana Otxoa Pando soprano bilbotarrak prestakuntza akademiko sendoa du. Musika Irakasletzan diplomaturik da, eta Psikopedagogian zein Kantuan lizentziaturik; gainera, erreperitorio espezializatuko hainbat graduondokorik egin ditu. Bere ibilbidean zehar, nazioarteko mailako abeslari eta erreperitoristekin hobetu du bere teknika.

Bere ahotsaren ezaugarriak direla medio, antzinako musikatik hasi eta sorkuntza garaikideraino doan erreperitorio zabalari aurre egiten dio. Erreferentziazko taldeekin lan egin du, besteak beste, Europa Galante, Los Músicos de su Alteza, Conductus Ensemble edota SIGMA Project-ekin; baita Bilbo, Euskadi, Sevilla eta Madrilgo Orkestra Sinfonikoekin eta Teatro Regio di Parmarekin ere.

Sevillako Hots Berrien X. Lehiaketan saritua, bere ibilbide eszenikoan *Rigoletto*, *L'elisir d'amore* eta *L'incoronazione di Poppea* operak nabarmentzen dira, baita *Luisa Fernanda*, *El Caserío* edo *Katiuska* zarzuelak ere. Bere alderdi ganberazaleena kalitate handiko pianista eta organistekin emandako kontzertuetan erakusten du.

Hainbat disko grabatu ditu bakarlari gisa; hainbat plataformatan zein Radio France, RTVE eta EITBk zuzenean grabatutako emanaldietan entzun daiteke. Bere berezitasunagatik, *Selene* opera, euskaraz eskainitako Euskal-opera kontzertua (*Alare*) eta Zubiaurreren *Pasioa* nabarmentzen dira.

La soprano bilbaína Ana Otxoa Pando posee una sólida formación académica. Es diplomada en Magisterio Musical y licenciada en Psicopedagogía y en Canto y ha realizado varios posgrados de repertorio especializado. A lo largo de su carrera, se ha perfeccionado con cantantes y repertoristas de talla internacional.

Su versatilidad vocal le permite abordar un amplísimo repertorio que abarca desde la música antigua hasta la creación contemporánea. Ha trabajado con formaciones de referencia como Europa Galante, Los Músicos de su Alteza, Conductus Ensemble o SIGMA Project, entre otros; así como con las orquestas sinfónicas de Bilbao, Euskadi, Sevilla, Madrid y el Teatro Regio di Parma.

Premiada en el X Certamen de Nuevas Voces Ciudad de Sevilla, su trayectoria escénica incluye títulos operísticos como *Rigoletto*, *L'elisir d'amore* y *L'incoronazione di Poppea*, y de zarzuela como *Luisa Fernanda*, *El Caserío* o *Katiuska*. Muestra su faceta camerística más pura en conciertos con pianistas y organistas de gran calidad.

Ha grabado varios discos como solista, se le puede escuchar en diversas plataformas y también en representaciones registradas en directo para Radio France, RTVE y EITB. Destacan por su singularidad la ópera *Selene*, el concierto de ópera vasca en euskera *Alare* y *La Pasión* de Zubiaurre.

ANDRA MARI Abesbatza



Errenterian 1966an José Luis Ansorenak (1928-2019) sortua, Andra Mari Abesbatzak koro musikan genero guztiak jorratzen ditu, euskal musikan espezializatua badago ere.

Gure herrian sortutako musika zaintzeko eta promozionatzeko beharrak zirela eta sortu zituen, José Luis Ansorenaren eskutik, 1973an Errenterian geroztik urtero egiten den Musikaste jaialdia eta, 1974an, berriz, Eresbil - Musikaren Euskal Artxiboa.

Bere ibilbidean nabarmentzekoak dira grabatu dituen hemeretzi diskoak, Estatuko jaialdi nagusienetan parte-hartzeak, eta hainbat orkestrekin emandako kontzertuak: besteak beste, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Bilbokoarekin, Espainiako Nazionalarekin, Tenerifekoarekin, Galiziakoarekin, Mahler Chamber Orkestrarekin, Frankfurt Irratiaren Orkestrarekin, Scottish Chamber Orkestrarekin... eta, beste askoren artean, M. Honeck, F. Brüggen, Ph. Herreweghe, J. J. Mena, A. Boreyko eta A. Orozco-Estrada, maisu handiek zuzenduta.

Egun Andoni Sierra da erakundearen zuzendari artistikoa.

Fundada en Errenteria en 1966 por José Luis Ansorena (1928-2019), la Coral Andra Mari cultiva todo género de música coral, aunque su especialidad es la música vasca.

La necesidad de conservación y promoción de la música creada en nuestro país hizo que, bajo la dirección de José Luis Ansorena, en 1973, creara el festival de música vasca MUSIKASTE y, en 1974, ERESBIL - Archivo Vasco de la Música.

En su trayectoria destacan la grabación de diecinueve discos, su participación en los principales festivales del Estado y las colaboraciones con diferentes orquestas sinfónicas: Orquesta Sinfónica de Euskadi, Orquesta Sinfónica de Bilbao, Orquesta Sinfónica de Tenerife, Orquesta Sinfónica de Galicia, Madrid, Orquesta de Nacional de España, Mahler Chamber Orchestra, Radio Frankfurt, Scottish Chamber Orchestra..., bajo la dirección de maestros de la talla de M. Honeck, F. Brüggen, Ph. Herreweghe, J. J. Mena, A. Boreyko, o A. Orozco-Estrada, entre otros.

En la actualidad Andoni Sierra es el encargado de la dirección artística de esta entidad.

andramariabesbatza.eus

EUSKADIKO ORKESTRA

Juantxo Egaña



Euskadiko Orkestra Musikasterekin duen hitzordura itzuli da eta 29. aldia izango du jaialdian parte hartzen. Denbora horretan orkestrak obra ugari interpretatu ditu, bere zuzendari titular askoren gidaritzapean eta abesbatzen eta bakarlarien laguntzaz, gure kulturaren aberastasunaren testigantza zabala utziz.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saitetik bultzatu eta garatua, Euskadiko Orkestra herrialde mailako orkestra da, oso exigentzia maila handikoa eta garai guztietako musika sinfonikoaren hedapenarekin konpromiso sendoa duena. Arreta berezia jartzen dio euskal musika sortzeari eta mundu osoan hedatzeari, nazioarteko bira ugarien eta grabazio diskografikoen banaketaren bidez. Maurice Raveli, Gabriel Erkorekari eta konpositore amerikarrei eskainitako azkenekoak, Ondine zigelupean erregistratuak, Euskadiko Orkestra ingurune espezializatuenean kokatu du.

Jarduera finkatu eta ondo egituratu baten bidez, orkestrak kontzertu-ziklo bana eskaintzen du Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Iruñean eta ganbera-musikari eta haurrei zein familiei eta gazteei eskainitako beste bi ziklo egiten ditu. Pertsona zaugarrienen gizarteratzea sustatzeko lan-ildo zabala ere garatzen du.

ABAO Bilbao Opera, Musika-Música, Musika Hamabostaldia, Zinemaldia, Ravel Jaialdia, Musikaste eta abarren denboraldietan ere parte hartzen du.

Euskadiko Orkestra vuelve a su cita con Musikaste y suma 29 años participando en el festival. Durante este tiempo la orquesta ha abordado un importante número de obras, bajo la batuta de muchos de sus directores titulares y acompañada de agrupaciones corales y solistas, dejando amplio testimonio de la riqueza de nuestra cultura.

Promovida y desarrollada desde el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, Euskadiko Orkestra es hoy una orquesta de país con un altísimo nivel de exigencia y firmemente comprometida con la difusión de la música sinfónica de todas las épocas. Atiende con especial énfasis la creación y expansión de la música vasca en todo el mundo a través de sus numerosas giras internacionales y de la distribución de grabaciones discográficas. Las últimas, dedicadas a Maurice Ravel, a Gabriel Erkoreka y a compositores americanos, registradas bajo el sello finlandés Ondine, han posicionado a Euskadiko Orkestra en el entorno más especializado.

A través de una asentada y bien estructurada actividad, la orquesta actúa en cuatro ciclos de conciertos en Bilbao, Vitoria, San Sebastián y Pamplona; celebra otros dos ciclos dedicados a la música de cámara y al público infantil, juvenil y familiar, y desarrolla una amplia línea de trabajo para promover la inclusión social de las personas más vulnerables. Participa en la temporada de ABAO Bilbao Ópera, Musika-Música, Quincena Musical, Zinemaldia, Festival Ravel, Musikaste, etc.

EuskadikoOrkestra.eus

URBINA, Pablo

Algarve Studios



Pablo Urbina 2025etik aurrera Portugalgo Orquestra do Algarve-ko zuzendari artistiko eta musikala da.

Azkenaldiko eta etorkizuneko konpromisoen artean nabarmentzen dira Manuel de Fallaren *El retablo de maese Pedro* eta Heitor Villa-Lobos-en *Yerma*, Tenerifeko Operarekin; baita Granada Hiriko Orkestrarekin egindako debuta ere, Granadako Nazioarteko Jaialdian. Halaber, azpimarratzekoa da bere itzulera Orquestra Simfónica de les Illes Balears-era, eta lanean aritu da Gaztela eta Leongo Orkestra Sinfonikoarekin, Lisboako Metropolitana-rekin, Orquestra do Norte-rekin, Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin, National Youth Orchestra of Great Britain-ekin eta Orquestra Sem Fronteiras-ekin.

Aurreko denboraldietan lau kontinenteetan aritu da zuzendari lanetan, eta lankidetzan jardun du honako taldeekin: Orquesta de Radio Televisión Española, Royal Liverpool Philharmonic Orchestra, The Hallé, Ulster Orchestra, Britten Sinfonia, Hong Kong Chamber Orchestra, Waco Symphony Orchestra, Orquesta de Córdoba eta Tunisian Symphony Orchestra.

Gasteizen jaioa, Iruñean trebatu zen Conservatorio Profesional Pablo Sarasaten, eta, ondoren, AEBetan ikasi zuen Thornton School of Music-en, bai eta Londresen ere, Royal College of Music-en.

Gizartean musikaren aldeko konpromiso sendoa du Urbinak, eta aktiboki parte hartzen du proiektu sozial, hezitzaile eta komunitarioetan. Horrez gain, The Amber Trust-eko enbaxadorea da, desgaitasuna duten pertsonen musikaren bidez laguntza ematen dien erakundea.

Pablo Urbina es, desde 2025, Director Artístico y Musical de la Orquestra do Algarve en Portugal.

Entre sus compromisos recientes y futuros destacan *El retablo de maese Pedro* de Manuel de Falla y *Yerma* de Heitor Villa-Lobos con la Ópera de Tenerife, su debut con la Orquestra Ciudad de Granada en el Festival Internacional de Granada, así como su regreso a la Orquestra Simfónica de les Illes Balears, la Orquestra Sinfónica de Castilla y León, la Metropolitana de Lisboa, la Orquestra do Norte, la Orquestra Sinfónica de Navarra, la National Youth Orchestra of Great Britain y la Orquestra Sem Fronteiras.

En temporadas anteriores ha dirigido en cuatro continentes, colaborando con formaciones como la Orquesta de Radio Televisión Española, la Royal Liverpool Philharmonic Orchestra, The Hallé, la Ulster Orchestra, la Britten Sinfonia, la Hong Kong Chamber Orchestra, la Waco Symphony Orchestra (EE. UU.), la Orquesta de Córdoba y la Tunisian Symphony Orchestra.

Nacido en Vitoria, se formó en Pamplona en el Conservatorio Profesional Pablo Sarasate, continuando sus estudios en Estados Unidos en la Thornton School of Music y en Londres en el Royal College of Music.

Comprometido con la música en la sociedad, Urbina participa activamente en proyectos sociales, educativos y comunitarios además de ser Embajador de The Amber Trust, organización que apoya a personas con discapacidad mediante la música.



Juan Crisóstomo de Arriaga	<i>Obertura, nº 20</i>
Zuriñe F. Gerenabarrena	<i>Haizorratz</i>
Ricardo Sabadie	<i>Suite en Miniatura</i>
Tomás Aragüés	<i>Sinfonía versus "noventa" *</i> 1er Movimiento
Maurice Ravel	Erromako Sarirako kantatak – Cantatas para el Premio de Roma <i>La nuit</i> <i>Matinée de Provence</i> <i>Toust est lumière</i> <i>Les Bayadères</i>

*Erabateko estreinaldia

Ana Otxoa Pando, sopranoa

Andra Mari Abesbatza

Andoni Sierra, zuzendaria

Euskadiko Orkestra

Pablo Urbina, zuzendaria

Jarduera pedagogikoak

Musikasteko Kontzertu Didaktikoak

Zaria Koru Eskola

Ahotsaren Bidai Magikoa

Zaria Koru Eskolak kontzertu didaktiko hau aurkezten du, musika estilo eta garai desberdinetan zehar bidaiatzeko eta musikaz gozatzeko proposamen gisa. Imanol Elizasu pianista eta zuzendariaren gidaritzapean, Zaria Koru Eskolako abeslariak ibilbide musikal hau eskainiko dute, non ahotsa izango den protagonista nagusia, eta haren bidez egingo den tradizio korala eta gaur egungo musika lotzen dituen bidia.

Kontzertuan zehar ahotsak eskaintzen dituen kolore eta aukera anitzak erakutsiko dira, hizkuntza musikalaren aberastasuna azalduaz.

Saioak Karlos Nguema aurkezlearen laguntza eta Aitor Gabilondoren eszena-zuzendaritza izango ditu, musika-hizkuntzaren aniztasuna modu didaktiko, partehartzaile eta erakargarrian entzulegoari hurbiltzeko.

Besteak beste, John Dowlanden *Come again*, Xabier Sarasolaren *Akerra ikusi degu*, Ken Zazpiren *Itsasoa gara* edota Coldplayren *Viva la Vida* interpretatuko dituzte.

Zaria Koru Eskola presenta un concierto didáctico diseñado para descubrir y disfrutar la música como un viaje sonoro a través de distintos estilos y épocas. Bajo la dirección y acompañamiento al piano de Imanol Elizasu, los cantores de Zaria Koru Eskola ofrecerán este recorrido musical en el que la voz será la gran protagonista, a través de la cual se realizará el viaje que conecta la tradición coral con la música más actual.

A lo largo del concierto se mostrarán los diferentes colores y las múltiples posibilidades expresivas que ofrece la voz, explorando la riqueza del lenguaje vocal y coral.

El concierto contará con la presentación de Karlos Nguema y la dirección escénica de Aitor Gabilondo, con el objetivo de acercar al público de forma amena y participativa la diversidad del repertorio vocal y sus diferentes posibilidades artísticas.

Se interpretarán, entre otras, obras como *Come again* de John Dowland, *Akerra ikusi degu* de Xabier Sarasola, *Itsasoa gara* de Ken Zazpi o *Viva la Vida* de Coldplay.





maiatza **12**
mayo

asteartea/martes
11:00etan
Lekuona Fabrika

maiatza **13**
mayo

asteazkena/miércoles
9:30 / 11:00etan
Lekuona Fabrika

Zaria Koru Eskola

Karlos Nguema, aurkezpena

Aitor Gabilondo, zudendaritza eszenikoa

Imanol Elizasu Lasa, pianoa eta zuzendaria

Musikasteko Kontzertu Didaktikoak
Actividades pedagógicas

Kontari Landarbaso Abesbatza

Hara!

Hara! proiektua izaera parte-hartzailea duen kontzertu-proposamen artistikoa da, Errenteriako ikastetxeetako ikasleak protagonista dituen, Kontari egitasmoarekin elkarlanean. Proiektuaren berezitasun nagusietako bat Iparralde-ko ikasleen parte-hartzea da; horri esker, lurralde arteko abesbatza bat eratzen da, Gipuzkoa eta Akitania uztartuz.

Ekimen honek musika ardatz hartuta, hezkuntza, sorkuntza eta elkarlana uztartzen ditu, gazteei esperientzia artistiko esanguratsua eskaintzeko. Entsegu eta prestaketa prozesu bateratuaren bidez, parte-hartzaileek ez dute soilik errepertorio bat lantzen; talde-lana, entzute aktiboa eta adierazpen artistikoa ere garatzen dituzte.

Era berean, *Hara!* proiektuak kulturartekotasuna eta hizkuntza-aniztasuna sustatzen ditu, lurralde desberdinetako gazteen arteko harremanak indartuz eta euskal kulturaren transmisioa testuinguru zabalago batean kokatuz. Azken kontzertuak prozesu horren emaitza partekatua erakusten du: kalitate artistikoa eta bizipen kolektiboa uztartzen dituen emanaldia.

El proyecto *Hara!* es una propuesta artística de carácter participativo en forma de concierto, que tiene como protagonistas a los alumnos de los centros educativos de Errenteria, en colaboración con el programa Kontari. Una de las principales singularidades del proyecto es la participación de estudiantes de Iparralde, lo que permite la creación de un coro que une Gipuzkoa y Aquitania.

Esta iniciativa, con la música como eje central, combina educación, creación y colaboración con el objetivo de ofrecer a los jóvenes una experiencia artística significativa. A través de un proceso conjunto de ensayos y preparación, los participantes no solo trabajan un repertorio, sino que también desarrollan el trabajo en equipo, la escucha activa y la expresión artística.

Asimismo, el proyecto *Hara!* fomenta la interculturalidad y la diversidad lingüística, fortaleciendo las relaciones entre jóvenes de distintos territorios y situando la transmisión de la cultura vasca en un contexto más amplio. El concierto final muestra el resultado compartido de este proceso: una actuación que integra calidad artística y experiencia colectiva.

maiatza 17
mayo

igandea/domingo
18:30etan
Lekuona Fabrika

Maialen Andres



Bizarain Ikastola
Orereta Ikastola
Koldo Mitxelena Ikastetxea
Telleri-Alde Ikastetxea
Urruña, Hendaia eta
Ziburuko abeslariak


Maddalen Dorronsoro,
zuzendari musikala



Musikal parte-hartzailea
Actividades pedagógicas

A close-up photograph of the internal mechanism of a piano, showing several strings and hammer flippers. The strings are made of metal and have a coiled section at the top. The hammer flippers are dark, textured metal plates with three circular holes each. The background is a blurred, warm-toned surface.

MUSIKAGILEAK Compositores



ALBERDI, Pedro
ALDAVE, Pascual
ARAGÜÉS, Tomás
ARRIAGA, Juan Crisóstomo de
AZURZA, David
BILINTX
BUSTO, Javier
ELBERDIN, Josu
ELIZALDE, Luis
GAIGNE, Manu
GARBIZU, Tomás
GERENABARRENA, Zuriñe F.
GUERRERO, Junkal
GURIDI, Jesús
IBAÑEZ IRRIBARRIA, Francisco
INTXAUSTI ARREGI, Jerman
IRIARTE, Fermín
José Antonio de DONOSTIA
LERTXUNDI, Benito
Lur Estibalitz
MORENO NAVARRO, Iñaki
NAVAS, Garazi
ONDARRA, Lorenzo
RAMIREZ, Pello
RAVEL, Maurice
SABADIE, Ricardo
SARRIEGUI, Raimundo
TAPIA, Joseba
USANDIZAGA, José María

ALBERDI, Pedro

Tolosan jaiotako banda-zuzendari eta konpositorea izan zen; Eduardo Mocoroa maisuarekin egin zituen musika-ikasketak. 1899an, Barakaldoko Udal Banda sortzeko oposizioetan parte hartu zuen, eta urte bereko abenduaren 12an bandako lehen zuzendari izendatu zuten. Alberdik aktiboki parte hartu zuen taldea osatuko zuten musikarien hautaketan, eta urtea amaitu baino lehen banda osatuta geratu zen. Haren zuzendari-tzapean, bandak heldutasun tekniko eta artistiko nabarmena lortu zuen, eta eskualdeko lehiaketetan sari ugari eskuratu zituen, bere prestigioa sendotzen lagundu zutenak. Konpositore gisa, batez ere zortzikoa, jota eta mazurka bezalako generoak landu zituen. Bere lanik aipagarrien artean *Cuentos Vascos*, *Torquito* eta *Fortuna* daude, bere estiloaren eta euskal musika-tradizioarekiko loturaren adierazgarri diren piezak. 1926an hil zen, gaixotasun luze baten ondoren.

Compositor y director de banda nacido en Tolosa, se formó musicalmente bajo la tutela del maestro Eduardo Mocoroa.

En 1899 se presentó a las oposiciones convocadas para la creación de la Banda Municipal de Barakaldo, siendo nombrado su primer director el 12 de diciembre de ese mismo año. Alberdi participó activamente en la selección de los músicos que integrarían la nueva agrupación, que quedó constituida antes de finalizar el año. Bajo su dirección, la banda alcanzó una notable madurez técnica y artística, obteniendo diversos galardones en certámenes regionales que contribuyeron a consolidar su prestigio.

Como compositor, cultivó principalmente géneros como el zortziko, la jota y la mazurca. Entre sus obras más destacadas figuran *Cuentos Vascos*, *Torquito* y *Fortuna*, piezas representativas de su estilo y de su vinculación con la tradición musical vasca.

Falleció en 1926, tras una prolongada enfermedad.

Lesakan jaio zen, 1924an. Salvador Radaren eskutik jaso zituen lehen piano ezaguerak eta Bilbo eta Bartzelonako kontserbatorioetan ikasi ondoren, 1953an Donostiako Kontserbatorioan musika ikasketa ofizialak amaitu zituen José M.^a Iraolarekin pianoan eta Francisco Escuderoekin harmonian eta konposizioan.

Frantziako Gobernuaren beka batez bidez Parisen ikasketak jarraitu zituen. Nadia Boulanger, Jean Françaix eta Maurice Ohanarekin konposizio eta orkestrazio ezaguerak hobetu zituen. Kontzertuak eskaini zituen eta Frantziako zenbait ikastetxetan irakatsi zuen, ORTF-rekin ere kolaboratuz. Iruñako Pablo Sarasate Kontserbatorioko irakasle eta zuzendari izan zen 1973 eta 1983 bitartean, eta zentro horretako ganbera-orkestra eta korua ere sortu zituen. Musika ekoizpenari dagokionean, musika erlijiosoa (*Misa litúrgica*, *Ave Maris Stella*, *Popule meus...*), koru musika profanoa (*Perfección*, *neskazarrak...*), ahots musika, ganbera musika eta sinfonikoa sortu zituen, *Suite infantil vasca*, *Akelarre* edo *El Cristo Ibérico*, esate baterako. 1974tik San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademiako kidea izan zen eta Donostian hil zen, 2013ko martxoaren 27an.

Nace en Lesaka el 22 de junio de 1924. Tras aprender las primeras nociones de piano con Salvador Rada y estudiar en los conservatorios de Bilbao y Barcelona, en 1953 concluyó los estudios musicales oficiales en el Conservatorio de San Sebastián con José M.^a Iraola en piano y Francisco Escudero en armonía y composición. Amplió estudios en París becado por el Gobierno francés, perfeccionando sus conocimientos de composición y orquestación con Nadia Boulanger, Jean Françaix y Maurice Ohana, entre otros. Dio conciertos y desarrolló una labor pedagógica en varios centros franceses, colaborando asimismo con la Office de Radiodiffusion-Télévision Française. Fue profesor del Conservatorio Pablo Sarasate de Pamplona y director del mismo entre 1973 y 1983, además de fundar la orquesta de cámara y el coro de dicho centro. Compositor perteneciente a la llamada Generación del 51, tiene en su haber una amplia producción musical, tanto de música religiosa (*Misa litúrgica*, *Ave Maris Stella*, *Popule meus...*) como música coral profana (*Perfección*, *Neskazarrak...*), música vocal, de cámara y sinfónica, destacando títulos como la *Suite infantil vasca*, *Akelarre* o *El Cristo Ibérico*. Miembro de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando desde 1974, falleció en Donostia el 27 de marzo de 2013.

1935eko urriaren 19an Albalate del Arzobispo herrian (Teruel) jaio zen. Gaztetan Barakaldora joan zen bizitzera, eta musika-prestakuntza Bilboko Kontserbatorioan egin zuen. Ondoren ikasketak Santiago de Compostelan eta Sienan zabaldu zituen.

Hirurogeiko hamarkadan, La Salleko Kongregazioari lotuta, Salamancako Unibertsitate Pontifizialean musika sakratuko irakasle aritu zen. Garai honetan nabarmentzen da *Misa Cantada* (1964), mundu hispanohiztunean hedapen handikoa. 1973 urtetik aurrera irakaskuntzan jarduera oparoa izan zuen: orkestraren eta abesbatzen zuzendaritzako katedraduna izan zen Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan. Halaber, hainbat talderen zuzendaria izan zen: Donostiako Barroko Taldea (1974-1979), Easo Abesbatza (1977-1986) eta Donostiako Kontserbatorioko Orkestra; azken hori 1980an sortu zuen eta 1996ra arte zuzendu zuen.

Konposizioaren alorrean hainbat sari jaso zituen: Torreviejako Habaneren Konposizio Lehiaketa Abesbatza Handientzat (1977 eta 1978); Asturiar gaien gaineko Abesbatza Konposizio Sari Nazionala Oviedon (1980 eta 1981); Erromako Nazioarteko Konposizio Saria (1980); Tolosako Abesbatza Lehiaketa (1980 eta 1981); eta Banda Sinfonikoetarako Nazioarteko I. Konposizio Lehiaketa (Valentzia, 1982).

Katalogo sinfoniko eta koral zabala utzi zuen; besteak beste: *Sinfonía del Ebro* (1961), *Gure Etxea* (1963), *Cuatro espacios sinfónicos* (1984), *Euskal Requiem* (1991), *Salmos para una Sinfonía* (1995-2004), *Concierto Diamantino* (2009), *IGNATIUS* opera (2009-2011), *Te Deum* (2012-2014), *Sinfonía versus "ochenta"* (2015) eta poema sinfoniko-korala *El libro de Rut* (2018).

2022ko otsailaren 17an Madril hil zen.

Nace en Albalate del Arzobispo (Teruel) el 19 de octubre de 1935. Tras trasladarse a Barakaldo en su juventud, se formó en el Conservatorio de Bilbao, ampliando posteriormente sus estudios en Santiago de Compostela y Siena.

Durante la década de los sesenta, vinculado a la Congregación de La Salle, ejerció como profesor de música sacra en la Universidad Pontificia de Salamanca. De esta etapa destaca su célebre *Misa Cantada* (1964), de gran difusión en el mundo hispanohablante.

A partir de 1973 desarrolló una intensa labor docente como catedrático de Dirección de Orquesta y Coros en el Conservatorio Superior de San Sebastián, así como director del Conjunto Barroco de San Sebastián (1974-1979), el Coro Easo (1977-1986) y la Orquesta del Conservatorio Donostiarra, fundada en 1980 y dirigida por él hasta 1996. Tiene en su haber varios reconocimientos y premios de composición como la Medalla de Oro de Euskal Herriko Txistulari Elkarte (2001), el Premio Orfeón Donostiarra-Euskal Herriko Unibertsitatea (2002) o el Premio de Composición Musical "Cantata Torre de Hércules" de A Coruña (2004).

Autor de un amplio catálogo sinfónico y coral con obras como *Sinfonía del Ebro* (1961), *Gure Etxea* (1963), *Cuatro espacios sinfónicos* (1984), *Euskal Requiem* (1991), *Salmos para una Sinfonía* (1995-2004), *Concierto Diamantino* (2009), la ópera *IGNATIUS* (2009-2011), *Te Deum* (2012-2014), *Sinfonía versus "ochenta"* (2015) o el poema sinfónico-coral *El libro de Rut* (2018).

Falleció en Madrid el 17 de febrero de 2022.

ARRIAGA, Juan Crisóstomo de

Juan Crisóstomo de Arriaga Bilbon jaio zen 1806ko urtarrilaren 27an, musikarekin estuki lotutako familia batean. Lehen musika-ikasketak etxean bertan egin zituen: aitarekin, Juan Simón de Arriaga organista ohiarekin, eta anaia nagusiarekin, Ramón Prudencio Arriagarekin, biolin eta gitarra jotzailea baitzen. Txikitatik erakutsi zuen aparteko talentua: 11 urterekin idatzi zuen bere lehen lana, eta 13 urterekin *Los esclavos felices* opera konposatu zuen. Ondoren, Fausto Sanz biolin-jotzailearekin jarraitu zuen ikasten, eta 1821ean Parisko Kontserbatorioan sartu zen.

Parisen, biolina ikasi zuen Pierre Baillot irakaslearekin, eta kontrapuntua eta fuga François-Joseph Fétis musikagilearekin. Fétisek, haren gaitasunak ikusita, bere armonia-klaseetan laguntzaile izendatu zuen. Hiri horretan sortu zituen bere lanik garrantzitsuenetako batzuk: musika erlijiosoak (gaur egun galdua dagoen meza bat, eta ahots baxurako eta hari-tresnetarako idatzitako *Stabat Mater*), aria eta duo dramatikoak (*Edipo*, *Medea*, *Erminia*, *Agar et Ismael*), eta musika instrumentala, besteak beste *Tres cuartetos de cuerda* eta *Sinfonía a Gran Orquesta*.

1826ko urtarrilean hil zen Parisen, oso gazte, 20 urte bete aurretik.

Juan Crisóstomo de Arriaga nació en Bilbao el 27 de enero de 1806 en el seno de una familia vinculada a la música. Recibió sus primeras enseñanzas de su padre, Juan Simón de Arriaga, antiguo organista, y de su hermano mayor Ramón Prudencio, violinista y guitarrista. Muy pronto manifestó un talento excepcional: compuso su primera obra con once años y, a los trece, escribió la ópera *Los esclavos felices*. Continuó su formación con el violinista Fausto Sanz antes de trasladarse en 1821 a París para ingresar en el Conservatorio.

En la capital francesa estudió violín con Pierre Baillot y contrapunto y fuga con François-Joseph Fétis, quien, impresionado por sus aptitudes, lo nombró repetidor de sus clases de armonía. Allí escribió sus obras más importantes: música religiosa como una Misa o una *Salve Regina* hoy perdidas, el *Stabat Mater*, para voces graves y cuerda, arias y dúos dramáticos como *Edipo*, *Medea*, *Erminia* o *Agar et Ismael*, y música instrumental como sus célebres *Tres cuartetos de cuerda* y la *Sinfonía a Gran Orquesta*. Falleció prematuramente en París en enero del año 1826, sin haber llegado a cumplir los veinte años.

Tolosan (Gipuzkoa) jaio zen 1968an. Arte Ederretan lizenziatua da eta kontratenore ikasketak Isabel Álvarezekin egin zituen. Madrilgo Goi Mailako Kontserbatorioan kantuko Lucrecia Arana Saria jaso zuen. Capilla Peñaflorida, Kea, Conductus Ensembleko kidea da eta La Trulla de Bozes, Antigua Capilla Hispana edo Música Liberata bezalako ahots taldeekin kolaboratzen du.

Zenbait operen estreinaldi absolutu eta grabaziotan protagonista paperak izan ditu: Tomás Marcorena (2003), Mauricio Sotelorena (2006), Eduardo Pérez Masedarena (2006), José M.^a Sánchez Verdúrena (2007), Luis de Pablarena (2010), Pilar Juradorena (2011) eta Juan José Eslavarena (2011).

Bere kabuz ikasi duen konpositorea da, ahotsetarako musika mugatzen da bere lana gehien bat. Bere obrak ezagutzera emateko 2004 urtean Oihu hau Musika argitaletxea sortu zuen, 80 obra baino gehiago editatu dituelarik: korurako moldaketak, bere konposizioak, ipuin musikalak eta ganberarako opera bat (*Altzoko Haundia, txikien opera*, 2011).

Nace en Tolosa (Gipuzkoa) en 1968. Es licenciado en Bellas Artes. Se forma como contratenor con Isabel Álvarez. Obtiene el Premio extraordinario Lucrecia Arana de canto en el Conservatorio Superior de Madrid. Es miembro de la Capilla Peñaflorida, Kea, Conductus Ensemble y colabora con otros grupos vocales como La Trulla de Bozes, Antigua Capilla Hispana o Música Liberata.

Ha realizado y participado en diversos estrenos absolutos y primeras grabaciones de óperas contemporáneas de Tomás Marco (2003), Mauricio Sotelo (2006), Eduardo Pérez Maseda (2006), José M.^a Sánchez Verdú (2007), Luis de Pablo (2010), Pilar Jurado (2011) y Juan José Eslava (2011).

Compositor autodidacta, su actividad se centra exclusivamente en el ámbito vocal. Cuenta con más de 80 obras editadas, desde arreglos corales, composiciones propias, cuentos musicales y una ópera de cámara (*Altzoko Haundia, txikien opera*, 2011) en Oihu hau Musika, el sello editorial creado por él en 2004 para difundir su obra.

Indalecio Bizkarrondo, Bilintx goitizenez ezaguna, Donostian jaio zen 1831ko apirilaren 30ean. XIX. mendeko euskal poeta eta bertsolari nabarmenetako bat izan zen. Gehienbat euskaraz idatzi zuen, eta bere lana euskal herri-poesiaren ondarearen parte da gaur egun.

Bere bizitza zailtasun askok baldintzatu zuten. Haurtzaroan istripu bat izan zuen, eta aurpegia desitxuratuta geratu zitzaion; horrek bere izaera sentikorrean eta zenbait bertsoetan ageri den tonu malenkoniatsuan eragina izan zuen. Bizitzan zehar hainbat lanbidetan jardun zuen: arotza izan zen lehenik, eta geroago Donostiako Antzoki Nagusiko atezain. Lan horri esker hiriko giro kulturalarekin harremanetan egoteko aukera izan zuen.

Bilintxek batez ere maitasun-poesia eta poesia satirikoa landu zituen. Bere olerkiek erromantizismoa, ironia eta eguneroko bizitzari begirada hurbila uztartzen dituzte. Haietako asko kantatzeko pentsatutako orri solteetan zabaldu ziren, eta horrek herritarren artean hedatzea erraztu zuen. Bere poemak Euskal-Esnalea elkarteak 1911n argitaratu zituen.

Bigarren Karlistaldian Donostiako batailoi liberaleko boluntario gisa izena eman zuen. 1876an karlisten granada bat bere etxera erori, eta hankak larriki zaurituta geratu zitzaizkion; hila bete luzez sufritu ondoren, urte bereko uztailaren 22an hil zen.

Nació en San Sebastián el 30 de abril de 1831 y es considerado uno de los poetas y bertsolaris más destacados del siglo XIX. Escribió principalmente en euskera y su obra forma parte del patrimonio de la poesía popular vasca.

Su vida estuvo marcada por diversas dificultades. En la infancia sufrió un accidente que le dejó el rostro desfigurado, circunstancia que influyó en su carácter sensible y en el tono melancólico que aparece en algunos de sus versos. A lo largo de su vida desempeñó distintos oficios, entre ellos carpintero y posteriormente conserje del Teatro Principal de San Sebastián, lo que le permitió mantenerse en contacto con el ambiente cultural de la ciudad.

Bilintx cultivó especialmente la poesía amorosa y satírica. Sus composiciones combinan romanticismo, ironía y una mirada cercana a la vida cotidiana. Muchas de ellas circularon en hojas sueltas destinadas a ser cantadas, lo que favoreció su difusión popular. Sus poemas fueron publicados en 1911 por la Sociedad Euskal-Esnalea.

Durante la Segunda Guerra Carlista se alistó como voluntario en el batallón liberal de San Sebastián. En 1876 una granada carlista cayó en su vivienda y le destrozó las piernas; tras meses de sufrimiento murió el 22 de julio de ese mismo año.

Hondarribian jaio zen 1949an. Medikuntza eta Kirurgian lizentziatua da (Valladolideko Unibertsitatea), eta familiako mediku gisa jardun zuen 1977tik 2013ra, erretiroa hartu zuen arte. Musikari autodidakta, Erwin List maisuak animatuta hasi zen jarduera koralean.

Ederki abesbatza mistoaren zuzendari izan zen Valladoliden (1972-1976), Hondarribiko Eskifaia abesbatza mistoaren sortzaile eta zuzendari (1978-1994), Kanta Cantemus Korua emakumeen abesbatzaren sortzaile eta zuzendari (1995-2007), eta Aquam Lauda Korua emakumeen abesbatzaren sortzaile eta zuzendari (2014-2024).

Bere koru-lanak Euskal Herrian, Alemanian, Estatu Batuetan, Frantzia, Japonian, Erresuma Batuan eta Suedian argitaratu dira. Alemania, Argentina, Belgika, Kanada, Espainia, Estatu Batuak, Frantzia, Hungaria, Italia, Japonia, Suedia eta Venezuelako jaialdi eta lehiaketetara gonbidatu dute zuzendari eta epaimahaikide gisa.

2025ean, Koru Kantuaren Sari Nazional Nagusiaren eskutik, Koru Musikaren I. Sari Nazionala jaso zuen, bost hamarkada baino gehiagoko ibilbidea aitortuz, zuzendari eta pedagogo gisa, eta mundu osoan interpretatutako erreperorioaren sortzaile gisa.

Nace en Hondarribia en 1949. Licenciado en Medicina y Cirugía por la Universidad de Valladolid, ejerció como médico de familia entre 1977 y 2013, actividad que compatibilizó con una intensa dedicación a la música coral. De formación musical esencialmente autodidacta, inició su trayectoria como director animado por el maestro Erwin List.

Fue director del coro mixto Ederki en Valladolid (1972-1976) y fundador y director del coro Eskifaia de Hondarribia (1978-1994). Posteriormente creó y dirigió el coro femenino Kanta Cantemus Korua (1995-2007) y más tarde Aquam Lauda Korua (2014-2024).

Sus obras corales se editan en el País Vasco, Alemania, Estados Unidos, Francia, Japón, Reino Unido y Suecia. Ha sido invitado como director y jurado a diferentes festivales y concursos en Alemania, Argentina, Bélgica, Canadá, España, Estados Unidos, Francia, Hungría, Italia, Japón, Suecia y Venezuela.

En 2025 fue distinguido con el I Premio Nacional de Música Coral, otorgado por el Gran Premio Nacional de Canto Coral en reconocimiento a una trayectoria de más de cinco décadas como director, pedagogo y creador de un repertorio interpretado en todo el mundo.

Pasaian (Gipuzkoa) jaio zen 1976an, eta bertako kontserbatorioan lortu zituen kantu eta piano irakasle tituluak. Era berean, Gizarte Hezkuntzan diplomatua da Euskal Herriko Unibertsitatean.

Hainbat abesbatzen zuzendaritzan aritzeaz gain, 2000. urte-tik Pasaiaiko Udal Musika Eskolako irakaslea da, eta 1991tik Trintxerpeko Karmengo Andre Mariaren parrokiako organista. Musika korallarekin lotutako ikastaroak ematen ditu haur eta helduentzat, eta maiz aritzen da epaimahaikide gisa abesbatzen eta konposizio-lehiaketa ugaritan, bai nazio mailan, bai nazioartean.

Konpositore gisa, sariak jaso ditu hainbat abesbatzen lehiaketatan, eta Tolosako Abesbatzen Lehiaketaren enkarguak eta nazioarteko abesbatzen eta jaialdien enkarguak jaso ditu. Bere musika, batez ere haurren eta musika korallaren eremuan oinarrituta badago ere, badu obra sinfoniko, pop-rock eta instrumentalen ekoizpen garrantzitsua ere. Bere lanetako batzuk Walton, Helbling eta CM Ediciones Musicales argitaletxeek plazaratu dituzte.

Nace en Pasaia (Gipuzkoa) en 1976, en cuyo conservatorio obtiene los títulos de profesor de canto y piano. Es, a su vez, diplomado en Educación Social por la UPV. Además de dedicarse a la dirección de varios coros, es profesor de la Escuela Municipal de Música de Pasaia desde el año 2000 y organista de la parroquia de N^a Sra. del Carmen en Trintxerpe desde 1991. Asimismo, imparte de forma regular cursos relacionados con la música coral, tanto infantil como adulta, y ejerce asiduamente como jurado en diversos concursos corales y de composición tanto a nivel nacional como internacional. En su faceta como compositor ha obtenido premios en diversos concursos corales y ha recibido encargos tanto del Certamen de Masas Corales de Tolosa como de un progresivo número de corales y festivales del panorama internacional. Si bien su música está fundamentalmente centrada en el ámbito infantil, y en general en la música coral, cuenta también con una importante producción de obras de carácter sinfónico, pop-rock o instrumental. Algunas de sus obras han sido publicadas por las editoriales Walton, Helbling y CM Ediciones Musicales.

Zangozan jaio zen 1940an. Estanislao Goñi herriko organistarekin hasi zen musika ikasten eta ondoren Donostiako Kontserbatorioan pianoko ikasketak egin zituen Iraolarekin. Erromako Musika Sakratuko Institutu Pontifizioan Organoan diplomatu zen; D. Bartoluccirekin konposizioa eta H. Anglesekin musikologia ere ikasi zituen. Geroago, Madrilen klabea landu zuen Genoveva Galvez-ekin, bai eta antzinako musikaren interpretazioa ere Innsbruck eta Pistoian (Italia). *Tesoro Sacro Musical* eta *Melodías* aldizkarien zuzendaria izan zen. Musika Sakratua eta Pedagogia Musikaleko Goi Mailako Ikas-tetxeko zuzendaria eta organo irakaslea izan zen. Apaiz klarretarra izanik, 1986an Potosi Iparraldean daukaten misio lekura joan zen bizitzera. Handik itzuli zenean Donostian finkatu zuen bere egoitza eta San Inazio Elizako apaiz lagunkidea da. Organo konzertista eta konpositore gisa jarduera oparoa garatu du. Obra erlijioso asko idatzi ditu, baita abestiak eta doinu desberdinetan oinarritutako harmonizazioak, *Misa Andina* obra aipa dezakegu, Bolibiako folkloean oinarritutakoa. Bestalde, musikaren pedagogia arloan, metodo, idatzi eta konferentzia ugari egin ditu, tartean *Haurrak jo txitua* (1979), *Canto Escolar: material pedagógico para la formación musical en la E.G.B. basado en el folklore español* (3 bol., 1979) edo *Pedagogía del canto escolar: apuntes para el profesor* (3 bol., 1980).

Nace en Sangüesa en 1940. Inicia sus estudios musicales con el organista local Estanislao Goñi. Cursa piano en el Conservatorio de Donostia con el profesor Iraola; órgano en el Instituto Pontificio de Música Sacra de Roma, composición con Domenico Bartolucci y musicología con H. Inglés. Posteriormente estudia clave con Genoveva Gálvez en Madrid e interpretación de música antigua en Innsbruck y Pistoia (Italia). Ha sido director de *Tesoro Sacro Musical* y *Melodías*, así como de la Escuela Superior de Música Sacra y de Pedagogía Musical de Madrid (1970-1985). Sacerdote claretiano, en 1986 se traslada a la misión que la orden tiene en la Región Norte Potosí, en Bolivia. A su regreso fija su residencia en Donostia y es coadjutor en la Iglesia de San Ignacio de la ciudad.

Ha desarrollado una intensa actividad como concertista de órgano y compositor. Es autor de numerosas obras religiosas, canciones y armonizaciones, destacando la *Misa Andina*, basada en el folklore autóctono boliviano. Es importante su aportación en el ámbito de la pedagogía musical, gracias a sus escritos y conferencias y métodos como *Haurrak jo txitua* (1979), *Canto Escolar: material pedagógico para la formación musical en la E.G.B. basado en el folklore español* (3 v., 1979) y *Pedagogía del canto escolar: apuntes para el profesor* (3 v., 1980).

Donostian (Gipuzkoa) jaio zen 1995ean. 2020an Musika Garaikideko Performanceko masterra amaitu zuen Escola Superior de Música e Artesen, Oporton. Aurretik, Musikenen Musikako Goi-mailako Ikasketak egin eta 2018an amaitu zituen. 2019an, Drumming Grupo de Percussao-ko Nano Drumming akademiako kide izan zen.

Konpositore gisa, arte-diziplina desberdinekin sortutako proiektuen sortzaile eta parte da. 2025ean, bi musika-pieza konposatu zituen, soinu-espazioa, eta Haatik Dantza Konpainiaren *OTS* obraren aukeraketa musikala sortu zuen. 2025ean, Garazi Navasekin batera, *Sonografía Irudipenak* izeneko proiektu musikaleko piezak sortu eta konposatu zituen. 2024an, Enbata konpainiaren *Urraska* ikuskizunerako musika konposatu zuen. 2023an, Puy Barral poetarekin batera *Huesos* proiektu eszenikoa sortu eta proiektuaren musika ekoitzi zuen.

2025ean, TARTAR kolektiboaren izenpean *Partiturak praktikatzuz* izeneko ikerketa koreografiko bat garatu zuen, Jone Amezaga dantzariarekin batera. Talde horrekin, 2022an, musikaren eta dantzaren arteko hizkuntza komunari buruz hausnartzen duen *Remedios Vals* pieza sortu zuten.

Nace en Donostia en 1995. Terminó su máster en performance de música contemporánea en la Escola Superior de Música e Artes, en Oporto en el año 2020. Anteriormente había cursado estudios superiores de Música en Musikene, terminados en 2018. En 2019, formó parte de la academia Nano Drumming de Drumming Grupo de Percussao.

Como compositor es parte de proyectos creados en asociación con diferentes disciplinas artísticas. En 2025, compuso dos piezas musicales, el espacio sonoro y creó la selección musical de la obra *OTS* de la Compañía de Danza Haatik. A lo largo del año 2025 creó y compuso junto a la música Garazi Navas las piezas del proyecto musical denominado *Sonografía irudipenak*. En 2024 compuso la música para el espectáculo *Urraska* de la compañía Enbata. En 2023 fundó el proyecto escénico *Huesos* junto a la poeta Puy Barral. En 2025 desarrolló una investigación coreográfica bajo el nombre del colectivo TARTAR, titulada *Practicando partituras* junto a la bailarina Jone Amezaga. Con este colectivo crearon en 2022 la pieza *Remedios Vals*, que reflexiona sobre el lenguaje en común entre la música y la danza.

Lezon jaio zen 1901eko irailaren 12an. Haurra zenean, bere herriko parrokiako koruan abestu zuen. Pianoa, bere anaia Jose apaizaren eskutik ikasten hasi zen. Arantzazuko Seminarioan urte batzuk ikasi zituen, eta esperientzia horrek Garbizuren bihotzean arrasto sakona utzi zuen. Ondoren, Donostiako Kontserbatoriora joan zen, eta han José M.^a Iraola eta Beltrán Pagola izan zituen irakasle. Haiekin pianoa eta harmonia ikasi zituen, hurrenez hurren. Organo ikasketak Madrilgo Kontserbatorioan egin zituen eta, geroago, Parisen, Charles Leboutekin jarraitu zituen. Madrilgo Enbaxada Frantsesaren organista ofiziala izan zen.

1954tik Donostiako Kontserbatorioan organo katedra bete zuen erretiroa hartu zuen arte. Tomas Garbizu interpretea baina gehiago musikagilea zen. Horrela, genero askotako obra-ondare zabala utzi zuen: musika erlijiosoa, euskal musika korala, lied-ak, txistu, piano, organorako lanak, ganbera-musika, oratorioak, zarzuelak, eta abar.

2018tik, ERESBILek bere musika-artxibo eta liburutegia gordetzen ditu. Bere katalogoan *Missa Benedicta* eta beste meza batzuk, moteteak eta musika liturgikoko piezak, *Jesús y la samaritana (Tríptico al Buen Pastor)* eta organorako beste lan batzuk, korurako euskal gaiei eta ez euskaldunei buruzko piezen zerrenda luzea, eta *Babilon beltza, Osanbela (Baso Jaun), Danos la paz, Aloña* eta antzeko obrak jasotzen dira.

1989ko azaroaren 27an Donostian zendu zen.

Nació en Lezo el 12 de septiembre de 1901. Fue niño de coro en su parroquia. Se inició en el piano de la mano de su hermano José, sacerdote. Estudió algunos años en el Seminario de Aránzazu, que dejó una gran huella en el corazón de Garbizu. Después pasó al Conservatorio de San Sebastián, donde tuvo como profesores a José M.^a Iraola y Beltrán Pagola, con quienes estudió piano y armonía, respectivamente. Amplió estudios de órgano en el Conservatorio de Madrid y, más tarde, en París con Charles Lebout. Fue organista oficial en la Embajada Francesa en Madrid.

Desde 1954 desempeñó la cátedra de órgano en el Conservatorio de San Sebastián hasta su jubilación, promocionando importantes discípulos. Tomás Garbizu era más compositor que intérprete. Así es como nos ha legado un gran fondo de obras de todo género: abundante música religiosa, música coral vasca, para txistu, lied, piano, órgano, música de cámara, oratorios, zarzuela, etc.

Desde el año 2018 ERESBIL conserva su archivo y biblioteca musical. Su catálogo incluye la *Missa Benedicta* y otras misas, motetes y piezas de música litúrgica, *Jesús y la samaritana (Tríptico al Buen Pastor)* y otras obras para órgano, una larga lista de piezas sobre temas vascos y no vascos para coro, los poemas sinfónicos *Babilon beltza, Osanbela (Baso Jaun), Danos la paz, Aloña*, etc. Falleció en San Sebastián el 27 de noviembre de 1989.

Gasteizen jaio zen 1965ean, eta konposizioa ikasi zuen Carmelo Bernaolarekin Jesús Guridi Kontserbatorioan, eta Franco Donatonirekin Milango Scuola Civica. Orkestra, ensemble, antzerki, dantza, akusmatika, soinu-instalazio eta diziplina anitzeko ikuskizunetarako piezak idatzi ditu. Europako hainbat herrialdetan, Japonian, Mexikon eta AEBetan antolatzen diren jaialdi eta agertokiatarako lanak idazteko enkargu eta laguntza ugari jaso ditu.

Artista egoiliarra izan da Notam (Oslo), EMS (Stockholm), ZHdk/ICST (Zurich), Shiro Oni (Onishi, Japonia), Tokyo Wonder Site, Studio Alpha-VICC (Visby, Suedia), USF Verfet (Bergen, Norvegia) eta LEC laborategian (Lisboa). Halaber, INAEM, CDMC, Eusko Jaurlaritza, Musika Hamabostaldia, Euskadiko Orkestra, KREA, Autore Fundazioa, BOS, Mikel Laboa Katedra, BBVA Fundazioa, Konstnärsnämnden, Musiken Sinfonietta, Etxepare Institutua eta antzeko erakundeetako enkargu eta laguntzak jaso ditu.

Sorkuntza eta irakaskuntza uztartzen ditu: Musikeneko Harmonia, Kontrapuntua eta Elektroakustikaren oinarriak irakasten ditu Konposizioaren espezialitatean, eta baita Konposizioa elektroakustiko baliabideekin Musikeneko Musika Garaikidea Sortzeko Irakaskutza artististikoen Masterrean ere.

Nacida en Vitoria-Gasteiz en 1965, estudió composición con Carmelo Bernaola en el Conservatorio Jesús Guridi, y con Franco Donatoni en la Scuola Civica de Milán. Ha escrito piezas para orquesta, ensemble, teatro, danza, acusmática, instalaciones sonoras y espectáculos multidisciplinares. Ha recibido encargos y ayudas para la escritura de obras que son programadas en festivales y escenarios de diversos países de Europa, así como en Japón, México y EE. UU.

Ha sido artista residente en Notam (Oslo), EMS (Estocolmo), ZHdk/ICST (Zúrich), Shiro Oni (Onishi, Japón), Tokyo Wonder Site, Studio Alpha-VICC (Visby, Suecia), USF Verfet (Bergen, Noruega) y en el Laboratorio LEC (Lisboa). Asimismo, ha recibido encargos y ayudas del INAEM, CDMC, Gobierno Vasco, Quincena Musical, Euskadiko Orkestra, KREA, Fundación Autor, BOS, Mikel Laboa Katedra, Fundación BBVA, Konstnärsnämnden, Musiken Sinfonietta, Instituto Etxepare, etc.

Combina la creación con la enseñanza de Armonía, Contrapunto y Fundamentos de electroacústica en la especialidad de Composición, así como de Composición con medios electroacústicos en el Máster de Creación de Música Contemporánea en Musiken.

www.ziferenabarrena.com

Andoainen jaio zen 1968an. Donostiako Kontserbatorioan Solfeo, Piano, Klabe, Musikaren Pedagogia eta Koru Zuzendaritza ikasketak egin zituen. 1995etik 2007ra Javier Bustoren zuzendaritzapean KCK-ko (Kanta Cantemus Korua) kide izateak eragin handia izan zuen formazioko nahiz koruko ibilbidean.

Gaur egun, Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorio Profesionalean piano-irakasle da, eta zeregin hori zuzendaritza eta korurako konposizio lanekin uztartzen du. 2008tik Luberri Abesbatzako zuzendaria da, eta 2012tik Loinatz Abesbatzako. Berak sortutako *Bi bihotz* lana, 2007ko Tolosako Haur Abesbatzen Lehiaketan derrigorrezkoa izan zen, eta *Kalera gazteak* 2011koan. Kantika Korala, Landarbaso Abesbatza, Ganbara Txiki abesbatza eta Unanue kamara koralerako obrak sortu ditu enkarguz. Musikasteren 2021eko edizioan bere *Arimen besarkadan* (Requiem) obra estreinatu zen, Covid-19ren pandemiaren garaian abesbatza, bakarlari eta organoarentzat idatzia, eta Erreneriako Andra Mari Abesbatzak eskatua. Haren obrak CM-Ediciones argitaletxeak argitaratu ohi ditu (www.cm-ediciones.com).

Nacida en Andoain, Gipuzkoa, en 1968. Es titulada superior en solfeo, piano, clave, pedagogía musical y dirección de coros por el Conservatorio Superior de San Sebastián. La experiencia vivida desde 1995 a 2007 como componente de KCK bajo la dirección de Javier Busto ha dejado una huella imborrable en su formación y trayectoria coral. Actualmente compagina su labor docente como profesora de piano en el Conservatorio Profesional Francisco Escudero con la dirección y composición coral. Es directora de Luberri Abesbatza desde 2008 y de Loinatz Abesbatza desde 2012. Su composición *Bi bihotz* fue obra obligada del Certamen Coral Infantil de Tolosa 2007 y *Kalera gazteak* del de 2011. Ha escrito por encargo para Kantika Korala, Landarbaso Abesbatza, Ganbara Txiki Abesbatza o Unanue Kamara Korala. En la edición de Musikaste de 2021 se estrenó *Arimen besarkadan* (Requiem) escrita durante la pandemia de la Covid-19 para coro, solistas y órgano, y encargada por la coral Andra Mari Abesbatza de Erreneria. Sus obras están editadas en la editorial CM-Ediciones (www.cm-ediciones.com).

<http://junkalguerrero.wordpress.com/>

Musikarekin lotura sakona zuen familia batean jaio zen: haren birraitona, Nicolás Ledesma, konpositore eta organista izan zen, eta bai aitonak-amonak, bai gurasoak musikariak izan ziren. Giro horrek eragin zuen lehen ikasketak etxean bertan hasi izana.

Hautzaroa Gasteizen, Zaragozan eta Madrilen igaro ostean, musika-prestakuntza sistematikoagoa jasotzen hasi zen. Madrilen, Valentín Arín-ekin harmonia ikasi zuen. 1899an, familia Bilbon finkatu zen, eta hiri horretan garatu zuen Guridik bere prestakuntzaren zati handiena. 1901ean eman zuen lehen kontzertu publikoa, eta urte berean jaso zuen Plácido Allende saria, *Chalupan* izeneko ahots eta pianistako lanagatik.

1904 eta 1908 artean, ikasketak zabaldu zituen Europan zehar. Parisko Schola Cantorum-en pianoa, organoa, kontrapuntua eta konposizioa ikasi zituen Vincent d'Indy-ren gidaritzapean; geroago, prestakuntza osatu zuen Bruselan, Joseph Jongen-ekin, eta Kolonian, Otto Neitzel-ekin.

1912tik aurrera, Bilboko Sociedad Coral-eko zuzendari izan zen, eta konpositore gisa garai oparoa hasi zuen. Genero guztietako musika idatzi zuen: musika erlijiosoa, korurako, organorako, orfeoiraiko musika, ganbera-musika (bi harizko laukote), musika sinfonikoa (*Sinfonía Pirenaica*, *Homenaje a Walt Disney*), musika lirikoa (*Mirentxu*, *Amaya*, *El Caserío*, *Mari-Eli*, *Peñamariana*) eta baita zinema-musika ere.

1939an, Madrilen ezarri zuen bere bizilekua. Han, organoko katedra bete zuen Errege Kontserbatorioan, eta erakunde horren zuzendari izan zen 1956tik 1961ean, hil zen arte.

Nació en una familia profundamente vinculada a la música: su bisabuelo fue el compositor y organista Nicolás Ledesma, y tanto sus abuelos como sus padres fueron también músicos. Este entorno favoreció que iniciara sus primeros estudios en el ámbito familiar.

Tras pasar su infancia entre Vitoria, Zaragoza y Madrid, comenzó a recibir formación musical más sistemática. En Madrid estudió armonía con Valentín Arín. En 1899 la familia se instaló en Bilbao, ciudad donde Guridi desarrolló gran parte de su formación. En 1901 ofreció su primer concierto público y ese mismo año obtuvo el Premio Plácido Allende por su obra *Chalupan* para voz y piano.

Entre 1904 y 1908 amplió estudios en Europa. En la Schola Cantorum de París estudió piano, órgano, contrapunto y composición con Vincent d'Indy, y posteriormente continuó su formación en Bruselas con Joseph Jongen y Colonia con Otto Neitzel.

Desde 1912 fue director de la Sociedad Coral de Bilbao e inició una brillante etapa de compositor, escribiendo en todos los géneros: música religiosa, para coros, órgano, orfeónica, música de cámara (dos cuartetos de cuerda), sinfónica (*Sinfonía Pirenaica*, *Homenaje a Walt Disney*), lírica (*Mirentxu*, *Amaya*, *El Caserío*, *Mari-Eli*, *Peñamariana...*), música de cine, etc. En 1939 fijó su residencia en Madrid. Desempeñó la cátedra de órgano en el Real Conservatorio, del que fue director desde 1956 hasta su muerte en 1961.

<http://www.eresbil.eus/web/guridi/>

IBÁÑEZ IRRIBARRIA, Francisco

Oyonen jaio zen, 1951. urtean, musika tradizio luzea zuen familia batean: aitona Unión Musical Oyonesa-ren sortzailea izan zen, eta aita, berriz, herriko musika bandaren zuzendaria. Gaztetatik, bere ibilbide artistikoa markatu zuen prestakuntza sendoa jaso zuen. Elizbarrutiko Gotzaitegian, Sabin Salaberri-rekin ikasi zituen solfeoa eta harmonia.

Bartzelonan egin zituen harmonia eta kontrapuntuko ikasketak, Poch, Carles Guinovart, Manuel Oltra eta Soler bezalako irakasleen gidaritzapean, eta E. Ribó-rekin osatu zuen bere prestakuntza koru-zuzendaritzan. Ondoren, ikasketak zabaldu zituen Bilbon, Juan Cordero-rekin, eta Gasteizen, Carmelo Bernaola konpositorearekin, konposizio eta instrumentazioan espezializatuz. Horrez gain, Bartzelonako Universidad Autónoma-n lizentziatu zen Hezkuntza Zientzietan.

Irakaskuntza jarduera zabala garatu zuen, bereziki Gasteizko Jesús Guridi Musika Kontserbatorioan, non irakasle izan zen eta 1984. urtetik aurrera belaunaldi berrietako musikarien prestakuntzan ekarpen handia egin zuen. Aldi berean, konpositore gisa, sormen jarduera bizi-bizia mantendu du.

Bere katalogoak lan ugari biltzen ditu: ahots, instrumentu, ganbera, sinfoniarako eta zinema-musika lanak; bereziki aipatzekoa da, halaber, helburu pedagogikoekin egindako bere ekoizpena.

Nacido en Oyón, en 1951, en una familia con larga tradición musical —su abuelo fue fundador de la Unión Musical Oyonesa y su padre director de la banda de música de la localidad—, recibió desde joven una sólida formación que marcó su trayectoria artística. En el Seminario Diocesano, estudia solfeo y armonía con Sabin Salaberri.

Realizó estudios de armonía y contrapunto en Barcelona con profesores como Poch, Carles Guinovart, Manuel Oltra y Soler, y completó su formación en dirección coral con E. Ribó. Posteriormente amplió estudios en Bilbao con Juan Cordero y en Vitoria con el compositor Carmelo Bernaola, especializándose en composición e instrumentación. Además, es licenciado en Ciencias de la Educación por la Universidad Autónoma de Barcelona.

Ha desarrollado una amplia actividad docente, especialmente en el Conservatorio de Música “Jesús Guridi” de Vitoria, donde ha ejercido como profesor y ha contribuido a la formación de nuevas generaciones de músicos desde 1984. Paralelamente ha mantenido una intensa labor creativa como compositor.

Su catálogo incluye obras vocales, instrumentales, de cámara, sinfónicas y música para cine, destacando también su producción con fines pedagógicos.

INTXAUSTI ARREGI, Jerman

Legorretan jaio zen, eta ogibidez argazkilaria izan zen; aldi berean, inguruko bizitza musikal eta kulturean nabarmendu zen txistulari eta konpositore gisa.

Argazkigintzan familiaren bidez trebatu zen, eta hamarkadaz hamarkada jardun zuen lanean, batez ere Alegiako eta inguruko herrietako ekitaldiak dokumentatzen: ezkontzak, familia-ospakizunak, ekitaldi publikoak, tokiko gertakariak eta dokumentazio ofizialerako erretratuak.

Bestalde, txistuari lotutako jarduera musikal oparoa garatu zuen. Zazpi urterekin hasi zen txistua jotzen, aitarekin. Urte luzez aritu zen txistulari gisa hainbat herritan, bereziki Tolosaldean eta Goierrin; besteak beste, Albizturren eta Amezketa-n igandeko dantzaldiak girotzen zituen. Halaber, txistulari berriak trebatu zituen Alegian eta txistu-eskolak eman zituen Albizturren.

Argazkilaria eta musikaria gisa izandako dedikazio bikoitzari esker, 60 urtetik gorako epean jaien dokumentazio grafiko zabala sortu zuen, askotan berak txistulari gisa parte hartzen zuen bitartean. Txisturako hainbat pieza konposatu zituen, eta 1955az goroztik Euskal Herriko Txistulari Elkarteko kide izan zen. Bere ibilbideak hainbat omenaldi instituzional jaso zituen. 2004ko otsailaren 12an hil zen Alegian.

Nacido en Legorreta, fue fotógrafo de profesión y una figura muy destacada en la vida musical y cultural de su entorno como txistulari y compositor. Aprendió el oficio de fotógrafo en el ámbito familiar y desarrolló su actividad durante décadas documentando la vida social de Alegia y de la comarca, realizando reportajes de bodas, celebraciones familiares, actos públicos y acontecimientos locales, así como retratos para documentación oficial.

Paralelamente desarrolló una intensa actividad musical vinculada al txistu, iniciada a los siete años de la mano de su padre. Actuó durante muchos años como txistulari en diversas localidades, especialmente en la comarca de Tolosaldea y en el Goierri, y fue responsable de animar los bailables dominicales en Albiztur y Amezketa. También formó a nuevos txistularis en Alegia e impartió clases de txistu en Albiztur.

Su doble dedicación como fotógrafo y músico le permitió documentar durante más de sesenta años numerosas fiestas populares mientras participaba en ellas como intérprete. Compuso además varias piezas para txistu y fue miembro de la Asociación de Txistularis del País Vasco desde 1955. Su labor recibió diversos homenajes institucionales.

Murió en Alegia el 12 de febrero de 2004.

Fermín Iriarte Irigoyen 1944an jaio zen Zugarramurdi (Nafarroa). Bederatzi urterekin hasi zituen musika-ikasketak F. Lazkanoren gidaritzapean, eta geroago L. Ondarrarekin osatu zituen solfeo eta harmoniako ikasketak. Gaztetatik erakutsi zuen abesbatzarako eta kanturako zaletasun nabarmena, eta kantuaren alorrean Juan Erasorekin Iruñean, eta Ramón Regidorrekin Madrilen trebatu zen. Interpretatzaile gisa, bakarlari aritu zen Coro Nacional de España eta, halaber, Nafarroako Fernando Remacha musika-konpositoreari eskaini zion omenaldian parte hartu zuen.

Abesbatzen zuzendaritzak ere bere interesa piztu zuen, eta hainbat ikastaro egin zituen alor horretan; horien artean, Budapesten egindako bat. Era berean, hainbat maisuren zuzendaritzapean abestu zuen, hala nola J. Eraso, José Luis Ansorena, J. M.^a Franco eta T. Alcántara.

1968an Coral Nora sortu zuen Zangotzan, eta 1976an San Fermín Abesbatza. Bi talde horien bidez konpositore garaikideen lanen estreinaldia bultzatu zuen. 1986an Espainiako Kultura Ministerioak Alemaniako hainbat hiri bisitatzera gonbidatu zuen, hango jarduera korala bertatik bertara ezagutzeko.

Horrez gain, irakaskuntzan ere jardun zuen, Musikaren Historiako irakasle gisa San Fermín Ikastolan, eta euskal abestien lehiaketetan epaimahaikide izan zen. Konpositore gisa, 1990ean lehen saria irabazi zuen Iruñean *Bozkario* lanarekin —abiesbatzarako, xirularako eta txalapartarako pieza—; horrez gain, hainbat obra koral eta doinu tradizionalen moldaketak ere idatzi ditu.

Fermín Iriarte Irigoyen nace en Zugarramurdi (Navarra) en 1944. Inicia su formación musical a los nueve años con F. Lazcano y completa posteriormente sus estudios de solfeo y armonía con L. Ondarra. Desde muy joven muestra una clara inclinación por el canto, formándose con Juan Eraso en Pamplona y con Ramón Regidor en Madrid. Como intérprete participa como solista en el Coro Nacional y en el homenaje que Navarra dedica al compositor Fernando Remacha.

Interesado también por la dirección coral, amplía su formación en diversos cursos, entre ellos uno celebrado en Budapest. Asimismo, canta bajo la dirección de maestros como J. Eraso, J. L. Ansorena, J. M.^a Franco y T. Alcántara.

Destaca como fundador de la Coral Nora de Sangüesa en 1968 y de San Fermín Abesbatza en 1976, agrupaciones con las que impulsa el estreno de obras de compositores contemporáneos. En 1986 es invitado por el Ministerio de Cultura a visitar distintas ciudades de Alemania para conocer su realidad coral.

Paralelamente desarrolla su labor docente como profesor de Historia de la Música en San Fermín Ikastola y participa como jurado en concursos de canción vasca. Como compositor obtiene en 1990 el primer premio en Pamplona con la obra *Bozkario*, para coro, xirula y txalaparta, además de escribir obras corales y arreglos de melodías tradicionales.

José Antonio de DONOSTIA

1886an jaio zen Donostian. Bere izen laikoa José Gonzalo Zulaica Arregui zen. Gaztetatik euskal musikaren alde egindako lan handiari esker, Aita Donostia izenez ezaguna egin zen.

Bere lehen konposizio maisua Ismael Echazarra izan zen, Lekarozeko Ikastetxean ikasten egon zen garaian. Ondoren, Bernardo de Gabiolarekin Donostian eta Adrià Esquerrárekin Bartzelonan ikasten jarraitu zuen. 1920 eta 1921 urteetan Parisen ikasi zuen Eugène Coalse-rekin, eta hark eragin handia izan zuen bere garapen artistikoan.

Musika sakratuaren konposizioari arreta berezia eskaini zion, teknika landu eta moderno batez; bereziki ezagunak egin ziren, ordea, euskal abesbatzarako idatzitako partiturak eta pianorako *Euskal Preludioak*.

Etnomusikologiaren alorreko lanek euskal folkloreari eta beste gai musikologiko batzuei buruzko teoriaren azalpen sakona egin zuten ikertzaile bihurtu zuten. Bere musika-lanak hamabi liburukitan argitaratu dira, eta bere literatura- eta musika-ekoizpenak bederatzi liburukitan bildu dira, horien artean *Euskal Kantutegia* sartuta. Bere musika-ondareak genero guztiak biltzen ditu, eta horien artean *Lied* ugari konposatu zituen katalanez, gaztelaniaz, frantsesez eta euskaraz.

Nació en 1886 en San Sebastián. Su nombre laico era José Gonzalo Zulaica Arregui. Merced a la gran tarea que realizó desde su juventud por la música vasca, pasó a ser nominado popularmente *Aita Donostia*.

Tuvo como primer maestro de composición a Ismael Echazarra, durante su estancia de estudiante en el Colegio de Lecároz. Continuó estudios con Bernardo de Gabiola en San Sebastián y con Adrià Esquerrá en Barcelona. En 1920 y 1921 estudió en París con Eugène Coals, quien dejó en él una gran huella. Aunque prestó una atención especial a la composición de música sacra con una técnica depurada y moderna, se popularizaron más sus partituras orfeónicas vascas y sus *Preludios Vascos* para piano.

Sus trabajos etnomusicológicos le convirtieron en un profundo expositor de teorías sobre el folklore vasco y otros temas musicológicos. Su obra musical ocupa doce tomos editados y su obra literario-musical abarca nueve tomos, en los que está incluido su *Cancionero Vasco*. Su patrimonio musical abarca todos los géneros y entre ellos compuso muchas partituras de *Lied* en catalán, castellano, francés y euskera. Falleció en Lecároz en 1956.

LERTXUNDI, Benito

Orion (Gipuzkoa) jaio zen 1942an eta familiarekin izan zuen lehen harremana musikarekin.

1965ean, beste euskal musikari batzuekin batera, Ez Dok Amairu mugimenduan parte hartu zuen, esperimentazio eta ikaskuntzarako leku bikaina izan zena, eta 1972an desegin bazen ere, bere arrastoa utzi zuen Lertxundi gaztearengan.

1971n argitaratu zen iraupen luzeko lehen diskoa, eponimoa. 1974an, *Oro laño mee batek...* idatzi zuen, eta, 1975ean, ... eta *Maita herria, üken dezadan plazera*. 1977an *Zuberoa/askatasunaren semeei* disko bikoitza atera zen. 1981ean beste disko bikoitz bat atera zen kalera: *Altabizkar / Itzaltzuko Bardoari*. 1987an argitaratu zen *Mauleko bidean...izatearen mugagabea*. Ondoren, *Pazko gaiardi ondua* (1989) eta *Hunkidura kuttunak* (1993) bilduma iritsiko ziren. 2002an *Nere Ekialdean* argitaratu zuen.

2005ean Álvaro Feitok bere lehen gaztelaniazko biografia argitaratu zuen, *Benito Lertxundi: el bardo de Orio*. Urte horretan bertan argitaratu zuen, gainera, bere hurrengo lana: *40 urtez ikasten egonak* (2005), *Itsas ulu zolia* (2008), *Oroimenaren Oraina* (2012), *Ospakizun gauean* (2018) eta *Zuhaitzak landatzen zuen gizona* (2019). 2024an, *Gernika zuzenean* bere azken diskoaren aurkezpenarekin, agertokietatik erretiratuko zela iragarri zuen.

Nació en Orio (Gipuzkoa) en 1942 y su primer contacto con la música fue en el entorno familiar.

En 1965, junto con otros músicos vascos, formó parte del movimiento Ez Dok Amairu que resultó ser un magnífico lugar de experimentación y aprendizaje y, aunque se disolvió en 1972, dejó su huella en el joven Lertxundi.

En 1971 se publica su primer disco de larga duración, de título epónimo. En 1974 compone *Oro laño mee batek...*, y, en 1975, ...*eta Maita herria, üken dezadan plazera*. En 1977 sale el doble disco *Zuberoa / Askatasunaren semeei*. En 1981 sale a la calle otro disco doble: *Altabizkar / Itzaltzuko Bardoari*. En 1987 se publicó *Mauleko bidean...izatearen mugagabea*. Después llegarán *Pazko gaiardi ondua* (1989) y el recopilatorio *Hunkidura kuttunak* (1993). En el año 2002 publicó *Nere Ekialdean*.

El año 2005 Álvaro Feito publica su primera biografía en castellano, *Benito Lertxundi: el bardo de Orio*. Ese mismo año sale a la luz, además, su siguiente trabajo: *40 urtez ikasten egonak* (2005), al que seguirán *Itsas ulu zolia* (2008), *Oroimenaren Oraina* (2012), *Ospakizun gauean* (2018), *Zuhaitzak landatzen zituen gizona* (2019). En 2024 anuncia su retirada de los escenarios con la presentación de su último disco en directo, *Gernika zuzenean*.

1999an Vitoria-Gasteizen jaio zen, eta musikarekiko lehen hurbilketa eskolaz kanpoko jardueren bidez izan zuen. Ondoren, ikasketak Luis Aramburu Udal Musika Eskolan eta Jesús Guridi Kontserbatorioan jarraitu zituen. Konposizioko ikasketak Musikenen egin zituen, eta gaur egun bertan ari da Pedagogia ikasten.

Goi-mailako ikasketen garaian sortu zuen bere obra musikalaren zati handiena, genero askotarikoak landuz: instrumentu bakarrerako konposizioak, ganbera-musikako lanak, orkestrarako piezak, elektroakustika, elektronika, abesbatzarako konposizioak eta bost abeslarirentzako eta ensemble handirako opera-proiektu bat, gerora geldirik geratu zena.

Nazio zein nazioarteko konpositore ospetsuekin masterclass-ak egiteko aukera izan du, besteak beste Philippe Manoury, Kaija Saariaho, Hector Parra, Pascal Dusapin, Édith Canat de Chizy eta Nicolás Núñez Hierro musikagileekin.

Horrez gain, bere jarduera musikala beste arlo batzuetan ere aktiboa izan da: irakasle, zuzendari eta abesbatzako abeslari gisa aritu da, eta proiektu pedagogikoetan parte hartu du. 2021–2022 ikasturtean Fundación SGAEren beka jaso zuen, eta ondoren, Académie Ravelek antolatutako Prix de Composition Maurice Ravel lehiaketaren lehen edizioan, bigarren saria eskuratu zuen.

Donostiako Orfeoiarentzat, Ensemble Intercontemporainrentzat eta Ensemble Sinkrorentzat lanak idatzi ditu, eta arlo pedagogikoan, Soinua Iratzarri proiektuan parte hartu du.

Nacida en 1999 en Vitoria-Gasteiz, su primer acercamiento a la música fue a través de actividades extracurriculares. Continuó sus estudios en la escuela de música Luis Aramburu y en el conservatorio Jesús Guridi. Ha finalizado la carrera de Composición en Musikene y actualmente está cursando Pedagogía en el mismo centro. Ha producido la mayor parte de su obra musical en el transcurso de sus estudios superiores, abarcando diversos géneros: composiciones para instrumento solista, música de cámara, orquestas, electroacústica, electrónica, corales y un proyecto de ópera para cinco cantantes y gran ensamble, que quedó en pausa.

Ha tenido la oportunidad de asistir a masterclasses con reconocidos compositores, tanto nacionales como internacionales, como P. Manoury, K. Saariaho, H. Parra, P. Dusapin, E. Canat de Chizy y N. Núñez Hierro. Además, su actividad musical se ha mantenido en otros ámbitos, como profesora, directora y cantante de coro, así como colaboradora en proyectos pedagógicos. En el curso 2021-2022, recibió la beca de la “Fundación SGAE” y posteriormente obtuvo el segundo premio en el primer “Prix de composition Maurice Ravel” de la Académie Ravel. Ha tenido la oportunidad de escribir obras para el Orfeón Donostiarra, el Ensemble Sinkro y el Ensemble Intercontemporain. En el ámbito pedagógico, este año participó en el proyecto Soinua Iratzarri.

Iñaki Moreno Navarro 2013tik Ondarreta Abesbatzako musika-zuzendaria da, Manuel Torre Lledó-ren lekua hartu ondoren; azken hori 1977tik aritu zen kargu horretan etengabe.

Filosofian doktorea da Deustuko Unibertsitatean, 2005ean María Luisa Amigo Fernández de Arroyabe-ren zuzendari-tzapean, *La filosofía de la música desde el descubrimiento de lo superobjetivo en la obra de Alfonso López Quintás* izenburuaz idatzitako tesiarekin. Piano-ikasketak egin zituen Bilboko Juan de Antxieta Musika Ikasketak Zentroan, eta biolontxelo-ikasketak Bilboko Kontserbatorioan.

Bilboko Koral Elkarteko zuzendariordea izan zen 1995etik 2006ra, eta zuzendari titular eta artistikoa 2006tik 2009ra. Halaber, Deustuko Unibertsitateko koruaren eta orkestraren zuzendaria ere izan zen.

Gaur egun Deustuko Unibertsitateko irakaslea da, baita Universidad Internacional de La Riojan eta Tecnológico de Monterreyn ere.

Zuzendaritza-lanarekin batera, korurako hainbat pieza tradizional egokitu ditu, eta korurako lanak ere konposatu ditu.

Iñaki Moreno Navarro es, desde el año 2013, director musical de la Coral Ondarreta Abesbatza, tras suceder en el puesto a Manuel Torre Lledó, quien lo había sido ininterrumpidamente desde 1977.

Es Doctor en Filosofía por la Universidad de Deusto, con la tesis presentada bajo el título *La filosofía de la música desde el descubrimiento de lo superobjetivo en la obra de Alfonso López Quintás*, dirigida por María Luisa Amigo Fernández de Arroyabe (2005). Realizó estudios de piano en el Centro de Estudios Musicales Juan de Antxieta de Bilbao y de violonchelo en el Conservatorio de Bilbao.

Ha sido subdirector de la Coral de Bilbao entre 1995 y 2006 y Director titular y artístico de la misma formación de 2006 a 2009.

También fue director del Coro y la Orquesta de la Universidad de Deusto.

Es profesor en la Universidad de Deusto, y fue profesor en la Universidad Internacional de La Rioja así como en el Instituto Tecnológico y de Estudios Superiores de Monterrey (México).

Paralelamente a la labor de dirección, ha realizado arreglos para coro de diferentes piezas tradicionales, además de componer piezas propias, siempre dirigidas al ámbito coral.

Usansolon (Bizkaia) jaio zen 1995ean. 2021ean amaitu zituen Musikenen (Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia) Interpretazio Musikalean Akordeoiaren Espezialitateko Arte Irakaskuntzetako Master ikasketak. Orduetik, interprete lanarekin batera, sortzaile eta konpositore moduan hainbat proiektutan parte hartu du.

2023an *Sainen hildo* izeneko akordeoirako suitea sortu zuen Miguel Á. García soinu-artistarekin batera; biek elkarrekin Dopelganger bikotea osatu zuten.

2024an Maite Aizpuru aktore eta idazlearekin batera, Eusko Ikaskuntza – Laboral Kutxa Gazte Saria jaso zuen, *Adarbakarra* lanagatik, zeinaren musika osoa berak sortu baitzuen. Antzerkian ere, Miren Gaztañagak zuzendutako *Etena* izeneko lanaren musika idatzi zuen, eta obraren zuzeneko interpretazioan ere parte hartu izan du.

2025ean *Pasabide bertikala: heriotzaren heriotza* izeneko soinu-instalazioa sortu zuen Donostiako Tabakalerako Scala espaziorako, eta urte bereko ekainean *Sonografía Irudipenak* proiektua aurkeztu zuen Manu Gaigne perkusio-jotzaile eta konpositorearekin batera, bi urtez Euskal Herriko soinu-paisaiaren bilakaerari buruz eginiko ikerketa bateratuaren ondoren.

Gainera, Oier Etxeberria artistarekin elkarlanean bi pieza sortu ditu, 2026an Bartzelonako La Virreina aretoan entzungai izango direnak.

Nació en Usansolo (Bizkaia) en 1995. En 2021 finalizó el Máster en Enseñanzas Artísticas de Interpretación Musical en la especialidad de acordeón en Musikene (Centro Superior de Música del País Vasco). Desde entonces, además de su labor como intérprete, ha participado en diferentes proyectos como creadora y compositora. En 2023 creó la suite para acordeón *Sainen hildo* junto al artista sonoro Miguel Á. García con el que formó el dúo Dopelganger. En 2024 recibió el Premio Eusko Ikaskuntza - Laboral Kutxa Gazte Saria junto a la actriz y escritora Maite Aizpuru por la obra *Adarbakarra*, creando ella toda la música. En teatro también ha escrito la música de la obra *Etena*, dirigida por Miren Gaztañaga, que también interpreta en directo. En 2025 creó la instalación sonora *Pasabide bertikala: heriotzaren heriotza* (*Paso vertical: muerte de la muerte*) para el espacio Scala de Tabakalera (Donostia) y en junio de ese mismo año presentó el proyecto *Sonografía Irudipenak* (*Sonografías Imaginarias*) con el percusionista y compositor Manu Gaigne, tras dos años de investigación conjunta sobre la evolución del paisaje sonoro en diferentes puntos de la geografía vasca. Además, ha creado dos piezas con el artista Oier Etxeberria que se podrán escuchar en 2026 en la sala La Virreina de Barcelona.

1931n jaio zen Bakaikun (Nafarroa). Oso gaztetatik sartu zen Altsasuko Kaputxinoen Apaiztegian, non ikasketa eliztarrak eta musikalak egin baitzituen. Bertan hasi zen solfeo eta pianoa ikasten; Apaiz izendatu ondoren, Donostian bere musika-prestakuntza garatu zuen: organoa Tomás Garbizurekin ikasi zuen eta konposizioa Francisco Escuderoekin, bi arloetan ikasketen amaierako sariak lortuz. Ondoren, bere formazioa zabaldu zuen Sienan (Italia) eta Darmstadt (Alemania) egindako ikastaroetan parte hartuz.

Bere bizitzan, hainbat esparrutan jardun zuen oparotasunez, konpositore, instrumentista, irakasle, folklore-ikertzaile eta musika-dibulgatzaile gisa. Ia 250 laneko ekoizpena osatu zuen, bereziki musika koralean eta erlijiosoan, baita txisturako, instrumentu multzoetarako, organorako eta orkestrarako piezetan ere. Bere konposizioetan euskal musika tradizioa eta kantu gregorianoa uztartu zituen, Europako ikasketetan bereganatutako baliabide garaikideekin.

1969an Premio Nacional de Bellas Artes de Música saria jaso zuen *Diálogos para dos sextetos de cuerda y órgano* lanagatik, eta konposizio lehiaketa ugaritan ere aitortza esanguratsuak lortu zituen. Bere lanak erreferentziatzko hainbat musika-taldek estreinatu eta interpretatu dituzte, hala nola Iruñeko Orfeoia, Donostiako Orfeoia, Orfeo Català, Andra Mari Abesbatza, Easo Abesbatza, Kanta Cantemus Korua eta Nafarroako Haur Kantariak.

2012an zendu zen Donostia-n.

Nace en Bakaiku (Navarra) en 1931. Ingresó muy joven en el Seminario Capuchino de Alsasua, donde cursa estudios eclesiásticos y musicales, comenzando con solfeo y piano para, ya ordenado sacerdote, perfeccionar en San Sebastián órgano con Tomás Garbizu y composición con Francisco Escudero, obteniendo premio fin de carrera en ambas especialidades. Amplía después su formación musical asistiendo a cursos en Siena (Italia) y en Darmstadt (Alemania).

Durante su vida desarrolla una intensa labor en múltiples facetas: como compositor, instrumentista, docente, investigador del folklore y divulgador musical. Su producción abarca casi 250 obras, especialmente en música coral y religiosa, así como música para txistu, conjunto instrumental, órgano y orquesta, integrando tradición musical vasco-navarra y canto gregoriano con recursos contemporáneos aprendidos en sus estudios europeos.

Ondarra es galardonado con el Premio Nacional de Bellas Artes de Música en 1969 por su obra *Diálogos para dos sextetos de cuerda y órgano* y obtiene numerosos reconocimientos en concursos de composición. Su música ha sido estrenada e interpretada por formaciones de referencia como el Orfeón Pamplonés, Orfeón Donostiarra, Orfeo Català, Coral Andra Mari, Coro Easo, Kanta Cantemus o Niños Cantores de Navarra.

Fallece en San Sebastián en 2012.

Bere musika-ikasketak adin goiztiarrean hasi zituen, akordeoia lehen instrumentu izanik. Geroago, Donostiako Udal Kontserbatorioan Román Jablonsky kontzertistarekin ikasi zuen eta aipamen berezia eskuratu zuen.

Bere ibilbide profesionalean jarduera anitza eta aktiboa garatu du, bai solista bai estudio-musikari eta hainbat proiektutako lankide gisa, bere konpositore-alderdia ahaztu gabe. Gainera, irakaskuntzan ere aritzen da: Ordiziako Musika Eskolan biolontxelo, akordeoia eta harmonia irakasten ditu.

Euskal zein nazioarteko eszenako artistekin lankidetzan aritu izan da, besteak beste Benito Lertxundi, Xabier Lete, Dulce Pontes, Niko Etxart, Iñaki Salvador, Ken Zazpi eta Mikel Urdangarin, eta hainbat grabazio zein kontzertutan musika-talde ezberdinekin parte hartu du.

Konpositore gisa, Ramirezek ibilbide sortzaile nabarmena garatu du, bere diskoetarako ez ezik, antzerki-lanak, dokumentalak eta laburmetraiak musikatu baititu. Bere lan diskografiko garrantzitsuenen artean *Haize Oihalak* eta *Eskuz Lurrari* aipagarriak dira.

Comenzó sus estudios musicales con el acordeón a una edad temprana. Posteriormente amplió su formación con el violonchelo en el Donostiako Udal Kontserbatorioa, donde estudió con el concertista Román Jablonsky y obtuvo mención honorífica.

A lo largo de su carrera ha desarrollado una intensa actividad tanto como intérprete solista como músico de estudio y colaborador en numerosos proyectos sin olvidar su faceta como compositor. Además de eso, en el ámbito docente es profesor de violoncello, acordeón y armonía en la Musika Eskola de Ordizia. Ha colaborado con destacados artistas de la escena musical vasca e internacional, como Benito Lertxundi, Xabier Lete, Dulce Pontes, Niko Etxart, Iñaki Salvador, Ken Zazpi y Mikel Urdangarin, y ha participado además en numerosas grabaciones y conciertos con diversas formaciones musicales.

Ramirez ha desarrollado también una destacada faceta creativa como compositor, creando música tanto para sus propios discos como para espectáculos escénicos, documentales y cortometrajes. Entre sus trabajos discográficos más representativos se encuentran los álbumes *Haize Oihalak* y *Eskuz Lurrari*.

Maurice Ravel Ziburun (Lapurdi) jaio zen 1875eko martxoaren 7an. Musika-ikasketak Parisko Kontserbatorioan hasi zituen, De Bériot, Anthiome eta Gabriel Fauré irakasleekin. 21 urtetik aurrera oso ezaguna bihurtu zen bere konposizioen originaltasunagatik, askotan bere izaera berritzaileak eztabaida sortuz. 1899an *Minueto antiguo* eta *Pavana para una infanta difunta* konposatu zituen. Bi urte geroago, Myrrha kantatarekin Erromako bigarren saria eskuratu eta *Jeux d'eau* (Ur-jokoak) idatzi zuen. Ondoren sortutako lanek —*Gaspard de la nuit*, *Ma mère l'Oye*, *Rapsodia española*, *Dulcinearentzako kanta*, *Alborada del gracioso*, besteak beste— bere estilo inpresionistaren adierazpen argia dira, hegoaldeko kolore distiratsuen eta tipismotik urrun dagoen ikuspegi koloretuaren bilaketaren erakusgarri.

Iraingarritasun puntu batekin eta antzerki-sentimendu oso nabarmenarekin, Ravelek *L'heure espagnole* konposatu zuen: opera bufa gogorazten duen komedia musikal bat, non modu fin eta ironikoan opera italiarraren tradizioa parodiatzen duen.

Bere sustraieri leial, udak lapurdin igarotzen zituen, euskaraz zuzen mintzatzen zen eta ama-etxean ostatu hartzen zuen, Donibane Lohizuneko jaietan eta kafetegi tertulietan parte hartuz. *Zazpiak Bat* izeneko euskal inspirazioko proiektu bat diseinatu zuen, baina azkenean ez zuen amaitu.

Iberiar penintsula hainbat aldiz bisitatu zuen, bere musika interpretatzen zuten orkestrekin batera. Andaluzian egindako bidaiak batean, dantzari baten bolero popular baten doinuak dantza egiten ikusi zuen, eta esperientzia horrek 1928an hain ospetsua den bere *Bolero* obra sortzera eraman zuen.

1929an, Ziburun, Iruñean, Donostian, Baionan eta Biarritzen hainbat omenaldi jaso zituen, piano eta *orkestrarako bi Kontzertuak*, *Valses nobles et sentimentales*, *Le tombeau de Couperin*, *La Valse*, *L'enfant et les sortilèges*, *Daphnis et Chloé* bezalako lanez beteriko ibilbide baten aitortza gisa. Bere azken urteak gaixotasun neurologiko larri batek markatu zituen, poliki-poliki paralisia eraginez. Maurice Ravel 1937ko abenduaren 28an hil zen Parisen.

Nacido en Ziburu (Lapurdi) el 7 de marzo de 1875, inició sus estudios musicales en el Conservatorio de París, donde fue alumno de De Bériot, Anthiome y Gabriel Fauré. Desde los 21 años adquirió notoriedad por la originalidad de sus composiciones, a menudo objeto de debate y controversia por su carácter innovador.

En 1899 compuso *Minueto antiguo* y *Pavana para una infanta difunta*. Dos años más tarde obtuvo el segundo Premio de Roma con la cantata *Myrrha* y escribió *Jeux d'eau* (Juegos acuáticos). Las obras que siguieron —*Gaspard de la nuit*, *Ma mère l'Oye*, *Rapsodia española*, *Canción de Dulcinea*, *Alborada del gracioso*, entre otras— revelan su concepción impresionista, el brillo de los matices meridionales y una búsqueda colorista alejada de cualquier tipismo.

De espíritu irónico y agudo sentido teatral, Ravel compuso *L'heure espagnole* (La hora española), una comedia musical que remite a la ópera bufa y parodia con sutileza la tradición operística italiana.

Fiel a sus raíces, pasaba los veranos en su tierra laburdina, donde hablaba euskera con corrección y se alojaba en la casa materna, participando en las fiestas populares de San Juan de Luz y en animadas tertulias de café. Concibió un proyecto de inspiración vasca, titulado *Zazpiak Bat*, que finalmente no llegó a concluir.

Visitó en varias ocasiones la península ibérica acompañado por orquestas que interpretaban su música. En uno de esos viajes a Andalucía presenció la danza de una bailarina al son de un bolero popular, experiencia que le inspiró, en 1928, la creación de su célebre *Bolero*. En 1929 recibió diversos homenajes en Ziburu, Pamplona, San Sebastián, Bayona y Biarritz, reconocimiento a una carrera marcada por obras tan emblemáticas como los *Conciertos para piano y orquesta*, los *Valses nobles y sentimentales*, *Le tombeau de Couperin*, *La Valse*, *L'enfant et les sortilèges* o *Daphnis et Chloé*.

Sus últimos años estuvieron marcados por una grave dolencia neurológica que le provocó una parálisis progresiva. Maurice Ravel falleció en París el 28 de diciembre de 1937.

SABADIE, Ricardo

Donostian jaio zen 1926an. Hango Artzain Onaren elizan tiplea izan zen. Francisco Escuderoekin ikasi zituen harmonia eta konposizioa. Donostia izugarri maite izan zuen. Ez zen musikaria izan lanbidez, baina lan batzuk egin zituen eta ezaguna da *Txuri Urdin* Realaren himnoa egin zuelako ahots, txistu eta atabalerako. Orkestrarako, korurako edo txistu bandarako lanak ere baditu, besteak beste: *Concierto para piano y orquesta*, *Suite en miniatura* –Victoria Eugenia Antzokian Ramon Usandizagaren Orkestra Sinfonikoak estreinatua– eta *Dantza dantzari*, Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan lehengo saria irabazi zuen obra. Literatura ere landu zuen eta horren erakusgarri dira *Brisa* olerki liburua bai eta *Historia de una sopa de pescado* eleberria ere.

Nacido en San Sebastián en 1926, este polifacético artista inició su andadura musical como tiple en la iglesia del Buen Pastor. Bajo la tutela del maestro Francisco Escudero, se formó en armonía y composición, desarrollando un profundo amor por su ciudad natal. Aunque es ampliamente recordado por dar vida al icónico himno *Txuri urdin* de la Real Sociedad —concebido inicialmente para voz, txistu y atabal—, su legado abarca desde piezas para orquesta y coros hasta literatura. Entre sus hitos destacan la *Suite en miniatura*, estrenada en el Teatro Victoria Eugenia, y su premiada obra coral *Dantza dantza dantzari*. Su inquietud creativa también se reflejó en las letras, publicando el poemario *Brisas* y la curiosa novela *Historia de una sopa de pescado*.

1838an jaio zen Donostian. Konpositore eta musikari herrikoia izan zen, eta bere lana bere jaioterriko jai eta musika tradizioan sakonki errotuta dago. Oso gaztetatik izan zuen musikarekin lotura: Santa Maria elizako koruan abestu zuen, eta San Vicente elizako tenore ere izan zen; hala, laster hasi zen sormen-ibilbidea garatzen, nahiz eta musika akademikoaren zentzuan profesionala ez izan.

Merkataritza-korredore gisa lan egin bazuen ere, bere benetako pasioa musika konposatzea eta zabaltzea izan zen; musikaren bidez Donostiako jai-giroa bizitasun bereziz adierazi zuen. Bere ekoizpen musikala —hirurogeita hamar pieza baino gehiago biltzen dituena— hiriko jai patronalen eta Danborradaren ikur bihurtu den *Donostiako Martxa* (1861) ospetsutik hasi eta, ihauteriekin eta konpartsarekin lotutako beste konposizioak biltzen ditu: *Diana*, *Iriyarena*, *Polka de tambores*, *Entierro de la sardina* edo *Caballería de Viejas*.

Konpositore lanaz gain, txarangak eta tokiko musika-taldeak zuzendu zituen, eta La Unión Artesana eta La Fraternal bezalako elkarteekin lankidetzan aritu zen jai eta ihauteri ekitaldietan.

XIX. mendearen bigarren erdiko Donostiako jai-musika ezin da ulertu Raimundo Sarriegui gabe; izan ere, berak sortutako melodiak egungo donostiarrek oraindik ere biziki maite baitituzte.

Nació en San Sebastián en 1838. Fue un compositor y músico popular cuya obra está profundamente arraigada en la tradición festiva y musical de su ciudad natal. Desde muy joven estuvo vinculado a la música: fue niño de coro en la iglesia de Santa María y más tarde tenor en la de San Vicente, desarrollando pronto una carrera creativa a pesar de no ser profesional de la música en sentido académico.

Aunque trabajó como corredor de comercio, su verdadera pasión fue componer y difundir música que expresó con singular viveza el espíritu festivo donostiarra. Su producción musical —que incluye más de setenta piezas— abarca desde la célebre *Marcha de San Sebastián* (1861), obra emblemática de las fiestas patronales y de la Tamborrada de la ciudad, hasta composiciones relacionadas con carnavales y comparsas como *Diana*, *Iriyarena*, *Polka de tambores*, *Entierro de la sardina* o *Caballería de Viejas*.

Además de su trabajo como compositor, dirigió charangas y grupos musicales locales y colaboró con colectividades como La Unión Artesana y La Fraternal en eventos festivos y carnavales.

La música de la fiesta donostiarra en la segunda mitad del siglo XIX no puede entenderse sin la figura omnipresente de Raimundo Sarriegui, autor de las melodías que aún los donostiarras del siglo XXI hacen suyas.

Joseba Tapia trikitiaren Euskal Herriko musikari esanguratsuenetakoa da eta berari zor zaio batik bat besteren artean 80. hamarkadatik aurrera trikitia testuinguru tradizionalan are gehiago mamitzeaz gain, instrumentua XXI. menderako joera garaikide eta irekiago baterako kokatuta utzi izana.

Umetan Bikondoaren eskutik eskusoinuari heldu arren trikitiari heldu zion ondoren pentagramaren zurruntasunetik ihesi Eleuterio Tapia osabaren eskutik. Leturia pandero-jotzailearekin bikotea osaturik 1986 eta 1988 urteetan Euskal Herriko Trikitixa Txapelketa Nagusia irabazi zituen eta bikote gisa talde aldaera ezberdinekin (Tapia eta Leturia banda, Tapia eta Leturia laukotean) azken 4 hamarkada pasatxotan erromeri giroko ehundaka emanaldi eskaini ditu. Bakarka, Zaldibobo, Hiru Truku... eta bestelako formazioetan proposamen musikal anitzak aurkeztu ditu berritzaileak zein euskal ondare eta pasarte historikoak berreskuratzen bideratutakoak, baita bereganatu duten Euskal Herriko zein atzerriko musikariekin kolaborazioak eginez aritu ere (Negu Gorriak, Mikel Laboa, Azala, Ganbara, Niko Etxart, Dupla, Quebec-eko musikariak...).

Iraganeko tradizioaren eroale ez ezik bere doinutuegia egun herrikoi bilakatu da belaunaldi berrientzat. Aipagarria da baita ere hainbat idazlerekin elkarlanean (Koldo Izagirrekin nagusiki, Itxaro Borda...) Euskal Herriko historiako une eta pertsonaien inguruan ardaztu eta sorturiko kantutegia.

Jardun honek guztiak 30 diskatik gora argitaratzera eraman du eta ibilbidearen erakusle eta aitortza gisa 2022an Adarra Saria eman zioten. Irakasle jardunean aritu da han eta hemen eta 2024/2025 ikasturteaz gozotik Baionako Kontserbatorio-riko trikiti irakaslea ere bada.

Joseba Tapia es uno de los músicos más representativos de la trikitixa en Euskal Herria y a él se debe, sobre todo a partir de la década de los 80, que el instrumento cuajara en el contexto tradicional y que se haya colocado en una tendencia más contemporánea y abierta hacia el siglo XXI.

Aunque se iniciara de niño con el acordeón de la mano de Bikondoa, pasó a la trikitixa huyendo de la rigidez del pentagrama, de la mano de su tío Eleuterio Tapia. Formando pareja con el panderista Leturia fue campeón del Campeonato de Euskal Herria de Trikitixa en 1986 y 1988 y como dúo han ofrecido cientos de actuaciones de romería en las últimas 4 décadas en diferentes formatos (Tapia eta Leturia banda, Tapia eta Leturia en cuarteto). Ha presentado propuestas musicales innovadoras y orientadas a recuperar el patrimonio y acontecimientos históricos vascos a través de formaciones como Zaldibobo, Hiru Truku o en su propio nombre y ha realizado colaboraciones con músicos vascos y extranjeros (Negu Gorriak, Mikel Laboa, Azala, Ganbara, Niko Etxart, Dupla, músicos de Quebec...).

Además de ser un portador de la tradición, sus melodías se han convertido hoy en día en populares para las nuevas generaciones. También cabe destacar el cancionero que, en colaboración con varios escritores (Koldo Izagirre principalmente, Itxaro Borda...), ha creado sobre momentos y personajes de la historia de Euskal Herria.

Toda esta actividad le ha llevado a publicar más de 30 discos y, como muestra y reconocimiento a su trayectoria, le fue concedido el Premio Adarra en 2022. Ha ejercido la docencia aquí y allá y desde el curso 2024/2025 es también profesor de trikitixa en el Conservatorio de Baiona.

1887an jaio zen Donostian, musikarekin lotura estua zuen familia batean. Lehen musika ikasketak amarekin hasi zituen, eta ondoren Germán Cendoya eta Beltrán Pagolarekin jarraitu zuen; hamalau urterekin Parisera joan zen bertako Schola Cantorum ospetsuan ikastera. Han pianoa ikasi zuen Gabriel Grovlezekin, eta harmonia, kontrapuntua eta konposizioa Vincent d'Indyarekin; gainera, Europako musika panoramaren aberastasuna gertutik ezagutu zuen.

Ikasketak amaitu ondoren, Donostiara itzuli zen behin betiko, eta bertako musika-bizitzan biziki integratu zen. Bere lehen lanek —pianorako, organorako eta orkestrarako piezak barne— berezko estiloa azaldu zuten, Europako eraginak eta euskal elementu herrikoiak bateratuz. 1910ean *Mendi Mendiyan* estreinatu zuen, eta 1914an arrakasta handia lortu zuen *Las golondrinas* zarzuelarekin; geroago bertsio operistikoan moldatua izan zen.

Azken urteetan hainbat obra konposatu zituen: fantasia eta eszena dramatikoetatik hasi eta oroitzapenezko ereserkietaraino. Horien artean nabarmentzen dira Donostiako sute handiaren mendeurrenerako egindako pieza, baita obra sinfonikoak ere: *Hassan eta Melihah*, *Suite en La*, *Hirurak Bat* eta *Umezurtza* sinfoniko-korala.

Amaitu gabe utzi zuen *La llama* opera; bere anaia Ramónek bukatu eta hil ondoren estreinatu zen. 1915ean, 28 urte zituela hil zen, eta bere heriotzak oihartzun handia izan zuen Donostian; gaur egun ere bere figura hiriaren sinbolo kultural eta artistikoa da.

Nacido en Donostia en 1887 en el seno de una familia musical. Comenzó sus estudios con su madre y continuó con Germán Cendoya y Beltrán Pagola; a los catorce años marchó a París para formarse en la prestigiosa Schola Cantorum, donde estudió piano con Gabriel Grovlez, armonía, contrapunto y composición con Vincent d'Indy, y se empapó del rico panorama musical europeo.

Tras completar su educación, regresó definitivamente a San Sebastián, integrándose en la vida musical local con gran intensidad. Sus primeras obras, incluidas piezas para piano, órgano y orquesta, mostraron una voz propia que combinaba influencias europeas con elementos populares y vascos. En 1910 estrenó *Mendi-Mendiyan* y en 1914 logró un éxito rotundo con la zarzuela *Las golondrinas*, que sería adaptada posteriormente en versión operística.

En sus últimos años compuso obras diversas, desde fantasías y escenas dramáticas hasta himnos conmemorativos, entre los que destaca la pieza dedicada al centenario del incendio de San Sebastián así como las obras sinfónicas *Hassan y Melihah*, *Suite en La*, *Hirurak Bat* o la sinfónico-coral *Umezurtza*.

Dejó inconclusa la ópera *La llama*, terminada y estrenada póstumamente por su hermano Ramón. Su muerte a los 28 años, en 1915, provocó un impacto profundo en San Sebastián, donde su figura sigue siendo símbolo cultural y artístico.

www.eresbil.eus/web/usandizaga/



ANTOLATZAILEAK ORGANIZAN



SUSTATZAILEAK PROMUEVEN



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa



KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

BABESLEAK PATROCINAN



LAGUNTZAILEA COLABORA

